



SEGURTASUN SAILBURUA,

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2014ko ekainaren 11n egindako osoko bilkuran, ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du, 86/2014 zenbakiarekin erregistratu baita; hain zuzen ere, **jendurreko ikuskizun eta jolas-jardueren lege-aurreproiektuaren** gainekoa (**Erref.: DNCG_LEY_7155/2013_07**).

Hausnartu, eta aho batez eman du irizpen hau. Eskubi Juaristi batzordekide jaunak adierazi du Batzordearen iritzia.

LEHENDAKARIA:

Sabino Torre Díez jauna.

LEHENDAKARIORDEA:

Xabier Unanue Ortega jauna.

BATZORDEKIDEAK:

Maria Teresa Astigarraga Goenaga andrea.
Luis M^a Eskubi Juaristi jauna.
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.
Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea.
Gorka Erlantz Zorrozueta Aierbe jauna.
Imanol Zubizarreta Artecheta jauna.
Ion Gurutz Echave Aranzabal jauna.
Iñaki Calonge Crespo jauna.

IDAZKARIA:

Jesús M^a Alonso Quilchano jauna.

99/2014 IRIZPENA

AURREKARIAK

1. Segurtasun sailburuaren 2014ko maiatzaren 13ko agindu baten bidez, egun berean erregistratu baitzuten Batzorde honetan, kontsultarako aurkeztu digute jendurreko ikuskizun eta jolas-jardueren lege-aurreproiektua.
2. Kontsultarekin batera datorren espedienteak, aurreproiektuaren testuaz gain, hurrengo dokumentuak eta izapideak jaso ditu:
 - a) Justifikazio-memoria.
 - b) Hasteko agindua.
 - c) Aurrez onartzeko agindua.



- d) Txosten juridikoa.
- e) Generoaren araberako eraginari buruzko txostena.
- f) Jendaurreko informazio-izapidearen iragarpena (gaztelaniaz eta euskaraz).
- g) Jendaurreko informazio-izapidea EHAAn argitaratzea (gaztelaniaz eta euskaraz).
- h) Arau-proiektua (gaztelaniaz eta euskaraz).
- i) Memoria, tasa eta prezio publikoen legeari dagokiona.
- j) Memoria ekonomikoa.
- k) Txostena, Emakunderena.
- l) Alegazioak, ONCerenak.
- m) Alegazioak, Bilboko Udalarenak.
- n) Alegazioak, Euskal Herriko Ostalaritza Federakundearenak.
- o) Jendaurreko informazio-izapidea EUDELi jakinaraztea.
- p) EUDELeke epea luzatzeko eskatzea.
- q) EUDELi epea luzatzea.
- r) Alegazioak, herritar partikular batenak.
- s) 2/14 irizpena, Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Kontseiluarena (gaztelaniaz eta euskaraz).
- t) Ziurtagiria, Kontsumobiderena.
- u) Txostena, Zerga Administrazioiko Zuzendaritzarena.
- v) Ziurtagiria, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluarena.
- w) Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren lege-aurreproiektuaren memoria.
- x) Akta, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluarena.
- y) Txostena, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarena.
- z) Udalei jendaurreko informazio-izapidea jakinaraztea.



- aa) Jendaurreko informazio-izapidea jakinarazi zaien udalen zerrenda.
 - bb) Aurreproiektuaren memoria laburra Aholku Batzorde Juridikoarentzat.
3. 2014ko ekainaren 5ean, dokumentazio berria jaso zen Batzordearen erregistroan, Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren txostenari buruzkoa, 2014ko maiatzaren 29ko datakoa, bai eta, harekin batera, sail sustatzailearen memoria osagarria ere, non txostenean egindako oharpenei buruzko kontsiderazio hauek jasotzen baitira.


KONTSIDERAZIOAK

I BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

4. Irizpen hau ematea nahitaezkoa da, lege-aurreproiektuak direnerako halaxe ezarri baitu –hain edukia eta helburua direnak direla ere– Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruz azaroaren 24an emandako 9/2004 Legeak 3.1. a) artikuluan. Era berean, ez gaude xedapen berak nahitaezkotasun horri buruz adierazitako salbuespenetako baten aurrean.

II AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

5. Aurreproiektuaren azalpenezko zatian esaten denez, gizarte- eta kultura-aldaketak gertatu dira aurreko legea eman zenetik, eta orokortu eta ugaritu egin dira aisialdiarekin zerikusia duten jarduerak. Aldaketak aldaketa, alor honetan lortu nahi diren helburuetako bat da jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak modu egokian garatzen direla ziurtatzea, parte-hartzaileen eta bertaratutakoen osotasuna eta segurtasuna (kontsumitzaileena nahiz erabiltzaileena) bermatuz, hala nola eragindako hirugarren pertsonena, herritarren arteko elkarbizitza ahalbidetzeko. Aurreko erregulazioa jarduera horien protagonisten eskubide-betebeharrekin, adibidez, uztartu beharra ere ikusi dute.
6. Adierazten da arau berriak ematen direla, indarreko legediaren aldaketa bultzatzeko, eta enpresa-ekimenaren alde egiteko, premiarik gabeko izapide burokratikoak kenduz eta izapideen prozedurak sinplifikatuz, segurtasuna eta bizikidetzatza babestuta interes orokorra zaintzea ahaztu gabe.
7. Jolas-jarduera eta -ikuskizunetan sarrera izateko gaitasuna ematen duten tituluaren sinplifikazioan sakontzen ahalegintzen da aurreproiektua, sektoreetako araubideak integratuz, bikoiztasunak saihestuz eta jarduera ekonomiko eta kulturaletan sartzeko izapideak arinduz.



8. Xedapenen zatiak hirurogeita bost artikulua ditu, bost titulutan banatuta, zenbait kapitulutan bilduta, honako titulu eta erregulazio hauekin:

I. titulua.- Xedapen orokorrak.

- I. kapitulua.- Arauaren xedea, eremua eta helburuak.

Xedea: 1.- artikulua.- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea.

Definizioak: 2. artikulua.- a) Jendaurreko ikuskizunak; b) Jolas-jarduerak; c) Establezimendu publikoak; d) Espazio irekiak.

Eremua: 3. artikulua.- Arauaren eranskinean jasotako establezimenduak, ikuskizunak eta jolas-jarduerak. Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira erabat pribatuak diren ospakizunak, familiaren barrukoak edo sozialak, edonork parte hartzeko modukoak ez badira, bai eta biltzeko eta manifestatzeko eskubidea erabiliz gauzatzen diren jarduerak eta erlijio-ospakizunak ere. Lege hau beste batzuen ordeztatik aplikatzekoa izango da era guztietako jendaurreko ikuskizun, jolas-jarduerak eta establezimendu publikoetan, kasuan kasuko legedian aurreikusitako gabe dauden kontuetan.

Xedeak: 4. artikulua.- Honako hauek sustatzea: jarduerak modu seguruan egitea; parte-hartzaileen segurtasuna eta osasuna; haiek gauzatzeko erabiliko diren ekipamenduen kalitatea, erosotasuna eta ingurumen-iraunkortasuna; eta, garatu bitartean, bizikidetzaren baketsua eta ordenatua.

Debekuak: 5. artikulua.- Debekatuta daude delitu diren jarduerak, indarkeria, arrazismoa, xenofobia, sexismoa edo beste edozein diskriminazio sustatzen dutenak, haurren eta nerabeen babesari erasotzen diotenak, eta animalien babesari edo ondare kulturalaren edo naturalaren babesari erasotzen diotenak. Halaber, debekatuta dago espazio publikoetan taldean edariak kontsumitzea, horrek eragozpenak eragiten badizkie hirugarrenei, edo



ingurumena andeatzen badu.

- II. kapitulua.- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua.

Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua:	6. artikulua.- Zerikusia duten erakundeen eta eragindako sektoreen kontsultarako eta parte-hartzerako organo gisa eratzen da.
---	---

II. titulua.- Ikuskizunei eta jolas-jarduerei aplikagarria zaien araubidea.

- I. kapitulua.- Eskubideak eta betebeharrak.

Ikusleak/erabiltzaileak, eskubideak:	7. artikulua.- Zenbait eskubide ezartzen ditu, kontsumo-arloko araudiaren arabera dituztenez gain. Eskubide horien artean, honako hauek daude: diskriminaziorik gabe onartua izatea eta zerbitzuak eta ikuskizuna edo jolas-jarduera aurreikusitako baldintzetan gozatu ahal izatea; jarduera bertan behera geratuz gero dirua bueltan jasotzea; erreklamazio-orriak eskura izatea; errespetuzko tratua jasotzea, diskriminaziorik gabea; eta publizitatea egiazkoa izatea.
---	---

Betebeharrak:	8. artikulua.- Besteak beste: onarpen-arauak betetzea; dagozkien eserleketan jartzea, beste helburu batzuetarako guneeetara sartu gabe; programa gauzatzen uztea eta ordutegiak errespetatzea; ez edukitzea armarik edo elementu arriskutsurik; ez erakustea indarkeria, arrazismoa, xenofobia edo diskriminazioa sustatzen duen objekturik; eta bizikidetza ez eragozteak.
----------------------	---

Beste pertsona interesdun batzuk, eskubideak:	9. artikulua.- Ikuskizunen edo jardueren eragina jasaten duten hirugarrenen eskubideak ere jasotzen dira: bizilagunenak, etab.
--	--

Titularrak / antolatzaileak, eskubideak:	10. artikulua.- Jarduera antolatzearekin, baldintzak ezarrita hura bermatzeko neurriak hartzearekin eta prezioak modu askean jartzearekin lotuta daude.
---	---



Betebeharrak:

11. artikulua.- Jardueraren bilakaeraren eta beren zabarkeriagatik edo aurreikuspen egokiak ez egiteagatik sortzen diren kalteen erantzule dira. Instalazioak funtzionatzeko egoera onean mantendu behar dituzte, segurtasuneko eta osasungarritasuneko neurriak hartu, bai eta zarata kontrolatzeko ere, eta hirugarrenei eragozpenik ez egiteko ahalegina egin behar dute. Iragarritako jarduerak gauzatu behar dituzte, ezinbesteko arrazoiren bat edo ezusteko arrazoiren bat ez bada, ikus-entzuleei sartzen utzi behar diete hori eragozteko legean ezarritako arrazoirik ez badago, bertaratuak errespetatu behar dituzte, eta auto-babesari, irisgarritasunari, berdintasunari eta hizkuntza-eskubideei dagokien legedia bete behar dute. Ez dute establezimenduan legez kanpoko jarduerarik onartu behar. Ikuskapena egiteko erraztasunak eman behar dituzte.

Artistak, antzezleak eta jarduleak, eskubideak:

12. artikulua.- Jarduera programatuta dagoen bezala gauzatzeko eskubidea dute, antolatzaileek eta erabiltzaileek errespetuz tratatzekoa, eta jarduera gauzatzeko babesa jasotzekoa; gainera, jarduteari uko egin diezaioketek, bidezko arrazoiren bat edo ezinbesteko arrazoiren bat egonez gero.

Betebeharrak:

13. artikulua.- Bertaratutako ikus-entzuleak errespetatu behar dituzte, eta jarduera programatu denaren arabera gauzatu, eskubideetan azaldutakoaren kaltetan izan gabe.

- II. kapitulua.- Ikuskizunen eta lokalen betebeharrak eta baldintzak.

Baldintza teknikoak:

14. artikulua.- Behar diren segurtasuneko, osasungarritasuneko eta higieneko nahiz irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bete behar dituzte, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, eta bertaratutako ikus-entzuleei zein hirugarrenei eragozpenik ez eragiteko; araudi honetan zein aplikagarri den sektoreko araudian ezarritakoak hain zuzen ere. Zehazki, segurtasunaren eta babesaren alorrean eskatzen diren baldintzak dira:



instalazioen egitura-sendotasunari eta funtzionamenduari, instalazio elektrikoari, sute eta gainerako arriskuei, osasungarritasunari, higienari eta akustikari, ingurumena eta ondare historikoa, artistikoa eta kulturala zaintzeari, irisgarritasun unibertsalari eta abarri buruzkoak. Toki-ordenantzen bidez mugak ezarri ahal izango dira ez daitezkeen establezimendu publiko gehiegi pilatu. Aurreikusten da araubide bereziko establezimenduei zenbait baldintza ezarri ahal izango zaizkiela erregelamendu bidez; funtsean, ordutegi-araubide bereziari, kokapenari, gutxieneko distantziei, mugikortasun-zerbitzuei edo bestelako neurri bereziei dagozkienak, haien eragina minimizatzeke.

**Informazioa eta
publizitatea:**

15. artikulua.- Establezimenduen sarreran kartel edo plaka bat jarri behar da jarduera eta titulartasuna identifikatzeko, bai eta identifikazio-bereizgarri bat ere, zer taldetako den adierazteko. Gainera, jardueraren baldintzei buruzko informazioa jarri behar dute ikusteko moduan. Ikuskizunen edo jardueren publizitateak jaso behar duen gutxieneko informazioa arautzen da, eta ezartzen da banaketaz arduratzen direnek antolatzaileak identifikatzen lagundu behar dutela.

**Sarrerak eta txartelak
saltzea:**

16. artikulua.- Sarrerak saltzeko baldintzak ezartzen dira honakoei dagokienez: salmenta-bideak eta saltokiak identifikatzea, zuzeneko salmentarako gutxieneko ehunekoak, sarreretan jaso beharreko gutxieneko informazioa eta abar. Debe katuta dago gainordainez saltzea, baimendu gabeko komisio-salmenta gauzatzea, eta sarrerak edo abonamenduak ezkutuan saltzea.

Ordutegia:

17. artikulua.- Establezimenduen ordutegi orokorra erregelamendu bidez zehaztea aurreikusten da, eta udalek, jaietan eta beste ekitaldi batzuetan, establezimenduen ordutegi orokorra zabaltzea erabaki ahal izango dute, erregelamenduak berak aurreikusitako baldintzetan. Ordutegi orokorra edo baimen berezi bati lotutako ordutegi berezi bat zabaltzea aurreikusten da, eragozpenik ez eragiteko beste neurri zuzentzaile batzuk



ezartzeko aukerarekin. Halaber, ordutegi orokorra mugatu ahal izango dela ere ezartzen da.

Adingabeak babestea: 18. artikulua.- Debekatuta dago adingabeak jarduera jakin batzuetan egotea, jarduerok ez badira egokiak haientzat, eta, bereziki, izaera pornografikoa edo muturreko indarkeriazkoa duten erakusketa-areto berezietan, dantzalekuetan eta diskoteketan, Internetera sartzeko adin-mugarik ez duten ziberlokaletan, eta joko-lokaletan, haien araubidearen arabera. 16 urtetik berakoek ezin dute pubetan egon, adin nagusikoekin ez bada, eta, betiere, alkoholik kontsumitu gabe eta 22:00ak arte. Antolatzaileek adinen arabera sailkatu eta mailakatu behar dute sartzeko aukera adingabeentzat arriskurik badago, eta jakinarazi egin behar da sailkapen hori. Dantzalekuetan edo diskoteketan adingabeentzako saioak egin ahal izateko baldintzak arautzen dira. Titularrek edo antolatzaileek bertaratutako ikus-entzuleei eska diezaiekete adina egiaztatzeko, eta ez diete sartzan utzi behar adina egiaztatzen ez dutenei, edo adin-eskakizuna betetzen ez dutenei.

Sarrera zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharrak: 19. artikulua.- Aurreikusten da establezimendu jakin batzuei zaintza- eta segurtasun-neurri bereziak eskatu ahal izango zaizkiela, hala nola armak edo bestelako objektu arriskutsuak detektatzeko gailuak, harrera-zerbitzu espezifikoak, etab. Gainera, 700 pertsonatik gorako edukiera baimendua duten establezimenduek pertsonak zenbatzeko eta edukiera kontrolatzeko sistemak izan behar dituzte. Udalerriek sistema horiek eskatu ahal izango dizkiete edukiera txikiagoa duten establezimenduei ere.

Sartzen uzteko baldintzak: 20. artikulua.- Establezimenduen titularrek sartzen uzteko eta ez uzteko baldintzak ezarri ahalko dituzte, betiere, objektiboak eta inola ere ez diskriminatzaileak. Sartzen uzteko baldintza horiek iragarri egin behar dira publizitatean, salmenta-bideetan eta establezimenduaren sarreran.



**Lehen laguntza eta
larrialdietako
ebakuazioa:**

21. artikulua.- Aurreikusten da erregelamendu bidez ezarriko dela zer establezimenduk edo jarduerak beharko dituzten lehen laguntza eta larrialdietako ebakuazioa gauzatzeko langile prestatuak eta bitartekoak, jarduera gauzatzeko den establezimenduaren, instalazioaren edo espazioaren neurriaren edo edukieraren arabera.

Asegurua:

22. artikulua.- Titular eta antolatzaile guztiek eduki behar dute kalteengatik erantzukizun zibileko aseguru bat, eta erregelamendu bidez zehaztuko da zer estaldura eta zenbateko izan behar dituen aseguru horrek.

III. titulua.- Administrazioak esku hartzea.

- I. kapitulua.- Establezimendu publikoak irekitzea.

Gaitzen duen titulua:

23. artikulua.- Desagertu egiten dira orain indarrean dagoen legedian ezarritako establezimendu-lizentzia edo aurretiko jakinarazpena (legedi horretan jarduera sailkatuen araudiak eskatzen dituen gaitzen duten tituluekiko araubide propioa eta autonomia duten gaitzen duten titulu dira). Araudi honen aplikazio-eremuan sartzen diren establezimenduak irekitzeko, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean (honen bidez aldatzen da) xedatutako gaitze-tituluak behar dira. Gaitzen duen tituluan jasota geratuko dira establezimenduan gauzatu diren jardura bateragarriak katalogoan jasotako artetik. Gaitzen duten titulu horien bidez, dagokion establezimendu-motaren berezko ikuskizunak eta jarduerak gauza daitezke, edo titulu horretan jasotzen direnak. Halaber, eta Udalari aurrez jakinaraziz gero, noizbehinka antzerki- edo musika-ikuskizun bat edo jardura kultural edo sozial bat ere gauzatu ahal izango da haren arabera, aurreikusita ez badago ere, betiere, gaitzen duen tituluan jasotako gainerako baldintzak aldatu beharrik ez badago.

**Txostena
ematea/organo**

24. artikulua.- Organo horrek neurri zuzentzaileen txostena eman ahal izango du zenbait establezimenduren jardura-



autonomikoa: lizentziak izapidetzean; zehazki, 700 pertsonatik gorako edukiera dutenena, zezen-plazena, araubide bereziko establezimenduen eta erregelamendu bidez ezarritako beste batzuen.

Jarduera sailkatua aurrez jakinaraztea: 25. artikulua.- Jarduera sailkatuen araudian aurreikusitako dokumentazioaz gainera, aseguruak kontratatu dutela egiaztatzen duen ziurtagiria eta, hala badagokio, auto-babeseko araudia betetzen dutela egiaztatzen duena aurkeztu beharko dute.

- II. kapitulua.- Behin-behineko instalazioak.

Behin-behineko instalazioak: 26. artikulua.- Udal-baimena behar dute prozedura sinplifikatu baten bidez, eta segurtasunarekin, higienarekin eta ikus-entzuleen eta jarduleen erosotasunarekin lotutako baldintzak eskatzen zaizkie, instalazio finkoei eskatzen zaizkien berberak.

Terrazak: 27. artikulua.- Establezimendu nagusi baten ondoko bide publikoa behar dute; horregatik, udalak emandako gaitze-titulu egokia eduki beharko dute, horretarako ezarritako toki-araubidearekin bat; instalazio horiek erabiltzeko ordutegia muga dezake araubideak, eta, edonola ere, bizilagunei eragozpenak eragiten dizkien edozein jarduera gauzatzea eragotzi.

Ferietako barrakak eta jolasak: 28. artikulua.- Udal-baimena eskuratu beharko dute, eta, horretarako, honakoak eskatuko zaizkie: erantzukizun zibileko aseguruak, eta fabrikatzailearen dokumentazio teknikoa, atrakzioak segurtasunarekin eta urteroko berrikuspenarekin lotutako baldintzak betetzen dituela eta segurua eta sendoa dela egiaztatzen duena.

- III. kapitulua.- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzea.

Gaitzen duten tituluak: 29. artikulua.- Jarduerak gauzatzeko ez da baimenik edo



aurretiko jakinarazpenik behar, haiek gauzatuko diren establezimenduak horretarako baimena badu. Aurretiko jakinarazpena beharko da noizean behin kasuan kasuko gaitze-tituluan jasotzen ez diren ikuskizunak edo jarduerak gauzatzeko, edo, titulu horretan sartuta ere, jarduera gauzatzeko baldintza tekniko orokorrak aldatu behar badira, segurtasuna aldatzen bada, aurreikusitako edukiera gainditu behar bada edo agertoki, oholtza edo egitura desmuntagarriak jarri behar badira. Halaber, aurretiko baimena beharko dute espazio irekietan gauzatuko diren ikuskizunek eta jarduerak 32. artikuluari jarraiki, zezen-ikuskizunek eta -jaialdiek, ikuskizun piroteknikoek eta herriz kanpoko bideetan egin behar diren kirol-probek.

Betekizunak:

30. artikulua.- Identifikatutako pertsonen edo erakundeen erantzukizunpean deitu eta gauzatu behar dira, hala badagokio gaitzen duen titulu egokia izan behar dute, segurtasunarekin, osasungarritasunarekin, higieinarekin eta irisgarritasun unibertsalarekin lotutako baldintzak bete behar dituzte, beharrezko diren zerbitzuak eta instalazioak izan behar dituzte, aseguru-poliza eduki behar dute, eragin akustikoaren balioespena aurkeztu behar dute, eta hori prebenitu eta minimizatu, eta legeak ezarritako gainerako eskakizunak bete behar dituzte.

Ikuskizunak eta jarduerak establezimenduetan:

31. artikulua.- Establezimendua gaitzen duen tituluan jasota ez dauden ikuskizunak eta jarduerak gauzatzeko, edo titulu hori izanda ere jarduerak baldintza tekniko orokorrak aldatzea badakar, fidantza bat eratu beharko da legeko betebeharrei eta administratiboei aurre egiteko. Administrazio publikoek ez dute fidantzarik eratu beharko.

Ikuskizunak eta jarduerak espazio irekietan:

32. artikulua.- Espazio publikoa modu berezian edo pribatiboan erabiltzeko baimen egokia beharko da beti. Gainera, lege honek ezarritako baimena beharko dute instalazio edo egitura finkoak edo behin-behinekoak edo mugikorrak edo desmuntagarriak erabiltzen badituzte jarduera gauzatzeko edo bertaratutako ikus-entzuleak babesteko. Horrela bada, 700 pertsonatik gorako edukiera duten espazio mugatuetan (sarbidea mugatuta dagoela)



gauzatzen badira, ikuskizunen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoaren txostena eskuratu beharko da, eta horrek neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango ditu.

**Zezen-ikuskizunak eta -
jaialdiak:**

33. artikulua.- Ezartzen da erregelamenduz arautuko direla zezen-plazak eta zezen-ikuskizunak egin daitezkeen lekuak eta instalazioak, bai eta ikuskizun eta zezenketa horiek nola antolatu behar diren eta nola egin behar diren ere. Helburua izango da bermatzea ikuskizunak duintasunez egiten direla, zezenekin aritzen diren profesionalen, zaleen eta, oro har, ikusleen eskubideak zaintzea, eta administrazio-antolamenduaren berezitasunei erantzun ematea.

Ikuskizun piroteknikoak:

34. artikulua.- Ikuskizun piroteknikoetan, estatuan lehergaiei buruz indarrean dauden arauetan eta lege hau garatzearren erregelamenduz zehazten diren arauetan jasotako segurtasun-baldintzak bete beharko dira.

**Herriz kanpoko bideetan
egin behar diren kirol-
probak:**

35. artikulua.- Bide-segurtasunaren araudian xedatutakoaren mende daude, lege honetan eta hori garatzeko araudian xedatutakoaz gain.

Eskumenak:

36. artikulua.- Udalarenak: Jarduera egitea gaitze-tituluak babestutako establezimendu batean; noizean behin egitea lokaletan, gaitze-titulu egokiak babestuta egon gabe; antzerki- edo musika-ikuskizuna, edo kultura- edo gizarte-jarduera, noiz behinkakoa, establezimendu batean eta gaitze-tituluarekin, jarduera tituluaren agertu ez arren, gaitze-tituluaren gainerako baldintzak aldatzen ez badira; noizean behin egitea establezimenduetan gaitze-tituluarekin, berekin ekartzen badute baldintzak aldatzea, edukiera handitzea edo egiturak jartzea; espazio irekietan egitea.

Gaian eskumena duten Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak: Zezen-ikuskizunak; ikuskizun piroteknikoak; herriz kanpoko bideetan egin behar diren



kirol-probak.

**Baimenen araubide
juridikoa:**

37. artikulua.- Baimenak emango dira beste baimen aplikagarri batzuk eska badaitezke ere. Legea garatzeko erregelamenduetan ezarriko da ebazteko eta jakinarazteko epea, eta, horrelakorik ez badago, 3 hilabetekoa izango da espazio irekietan gauzatzen diren ikuskizunetarako eta jardueretarako, eta isiltasuna negatiboa da. Gainerako egoeretan, araurik ez badago, eskabideak 10 egun lehenago aurkeztu beharko dira, eta isiltasuna positiboa izango da jarduera egin baino 72 ordu lehenago ezer jakinarazi ez bada.

**Aurretiko
jakinarazpenaren
araubidea:**

38. artikulua.- Ikuskizuna edo jarduera hasi baino 10 egun lehenago aurkeztu behar da gutxienez, eta adierazi beharko da zer jarduera gauzatu behar den, antolatzailea nor den, noiz eta non egingo den eta zein den edukiera eta erregelamenduan adierazitako gainerako dokumentazioa. Hori aurkezteak jarduera gauzatzeko ahalmena ematen du, gero administrazioak egiaztapen- eta kontrol-jarduerak gauza baditzake ere. Datuak edo dokumentuak ez badira aurkezten, edo aurkeztutakoak ez badira zehatzak, faltsuak badira edo falta badira, ezin izango da jarduera gauzatzeko jarraitu, eta administrazioak bertan behera utzi ahal izango du jarduera entzunaldi-izapidea gauzatu ondoren.

IV. titulua.- Zaintzea, kontrolatzea eta ikuskatzea.

- I. kapitulua.- Xedapen komunak.

**Mantentzeko eta
berrikusteko
betebeharra:**

39. artikulua.- Titularrek eta antolatzaileek funtzionatzeko egoera onean mantendu behar dituzte establezimenduak eta instalazioak. Establezimenduen titularrek sektoreko araudian ezarritako kontrolak eta berrikuspenak egin behar dituzte.

Egiaztapenak eta

40. artikulua.- Administrazio eskudunek honako ahal hauek dituzte: establezimenduak ikuskatzea, jarduera nola



kontrolak: gauzatzen den kontrolatzea, jarduera debekatzea, bertan behera uztea, ixtea eta segurtasun-neurriak hartzea, behin-behineko neurriak hartzea eta arau honetan ezarritakoak ez badira betetzen zehapenak ezartzea.

- II. kapitulua. Ikuskatzea.

Ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenak: 41. artikulua.- Hasiera batean, jarduera hasi aurretiko kontrola gauzatzeko eskumena duen administrazioak ditu ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenak ere. Alabaina, aurreikusten da Eusko Jaurlaritzak ikuskapen osagarria egingo duela egoera batzuetan, eta udala ordeztu ahal izango duela hark jarduten ez badu.

Ikuskatzeko irizpideak eta koordinazioa: 42. artikulua.- Ikuskapenen helburuak eta lehentasunak ezartzea Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluak txostena egin ondoren, eta elkarren arteko ikuskapen-planak sustatzea.

Ikuskapena gauzatzea: 43. artikulua.- Ikuskatzeko ahalmenak (Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizunen Unitateko agenteak edo udaltzainak, edo izendatutako beste funtzionario publiko batzuk, bai eta gaitutako langile teknikariak ere). Ikuskapen-motak: programatuak edo funtzionatu bitartean egiten direnak aurrez jakinarazi gabe. Ikuskatzaileei sartzeko betebeharra, konstituzioak etxeetan sartzeari dagokionean ezarritako mugarekin, eta haiek in lankidetzan jardutekoa. Eska daitekeen lege-dokumentazioa aurkezteko betebeharra. Ikuskapen-akten edukia. Jakinarazitako aktan irregulartasunak zuzentzeko errekerimenduak ezarri ahalko dira, edo salaketa jarri; hori unean bertan jakinarazten bada, zehapen-prozedura hasteko akordio izango da.

- III. kapitulua.- Segurtasun-neurriak.

Polizia-zaintza: 44. artikulua.- Euskadiko polizia-gorputzen arreta berezia; polizia-arloko segurtasun-neurri bereziak hartzea,



arriskua egon ahal izanez gero. Dagokion araubide espezifikoa ezarritakoa bete behar dela ezartzea kirol-ikuskizunetako indarkeria, arrazakeria eta xenofobiaren aurkako lanaren arloan.

Debekatzea eta bertan behera uztea:

45. artikulua.- Legez debekatutako ikuskizunak badira, arrisku ziurra badago, nahasmendu larriak sortzen edo aurreikusten badira, edo ez badute gaitzen duen titulurik eta ez badituzte segurtasun-neurriak betetzen. Oro har, aurrez jakinarazi behar da jarduera bertan behera utzi baino lehen.

Ixtea eta zigilatzea:

46. artikulua.- Establezimendua denbora batez itxi edo zigilatu daiteke arrazoiak jarraitzen badu gaitzen duen titulua ez izateari dagokionean, arrazoituta eta entzunaldia egin ondoren. Era berean, itxi edo zigilatu daiteke segurtasun edo osasungarritasun publikoa larriki arriskuan jartzen duten urritasunak badaude. Berehalako arriskua bada, aurretiko entzunaldirik egin gabe har daitezke neurri horiek. Ikuskaritzak premiaz erabakitzen badu, agintaritza eskudunak gehienez hirurogeita hamabi orduko epean berretsi behar du.

Konfiskatzea:

47. artikulua.- Debekatu edo bertan behera utzi den ikuskizunarekin edo jarduerarekin lotutako ondasunak konfiska daitezke neurri horiek eraginkorrak direla bermatzeko.

Agintaritza eskudunak:

48. artikulua.- Baimenak edo lizentziak emateko edo aurretiko jakinarazpenak jasotzeko eskumena dutenak, eta Segurtasun Saila toki-erakundea inhibituz gero, errekerimendua egin ostean, edo larrialdi-arrazoiengatik.

V. titulua.- Zehapen-araubidea.

- I. kapitulua.- Arau-haustekak.



Arau-hausteak: 49. artikulua.- Arau-hausteak honela sailkatzen dira: oso larriak, larriak eta arinak. Arau-hauste oso larriak: 50. artikulua. Arau-hauste larriak: 51. artikulua. Arau-hauste arinak: 52. artikulua. Erantzuleak: 53. artikulua.

- II. kapitulua. Zehapenak.

Arau-hauste oso larriei dagozkien zehapenak: 54. artikulua.

Arau-hauste larriei dagozkien zehapenak: 55. artikulua.

Arau-hauste arinei dagozkien zehapenak: 56. artikulua.

Zehapenak mailakatzea: 57. artikulua.- Larritasunarekiko proportzionaltasuna, garrantzia, eragindako arriskua eta legez kontra lortutako onura kontuan hartuta. Legez kontrako onuraren zenbatekoarekin batera handi daiteke.

- III. kapitulua. Preskribatzea eta iraungitzea.

Arau-hausteak preskribatzea: 58. artikulua.- Hurrenez hurren, hiru urte, bi urte edo urte bat arau-haustearen larritasun-mailaren arabera, egiten denetik kontaktzen hasita, edo, bestela, azken egintza gauzatzen denetik, edo, arau-hauste jarraituan, jarduera amaitzen denetik; etetea espediente irekitzeagatik interesduna horren berri izanda, eta berriz ezartzea hilabetetik gorako geldialdiagatik.

Zehapenak preskribatzea: 59. artikulua.- Arau-hausteetarako preskribatze-epe berak, irmotasunetik kontaktzen hasita; preskripzioa eteteko eta berriz ezartzeko epe bera.



Iraungitzea: 60. artikulua.- Hasi eta gehienez ere urtebeteko epean ebatzi eta jakinarazi behar da prozedura, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko Legean aurreikusitako inguruabarren bat izan ezean.

- IV. kapitulua. Eskumena eta prozedura.

Zehatzeko ahala erabiltzeko eskumena duten organoak: 61. artikulua.- Oro har, jarduera ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumena duen udal- edo autonomia- organoaren eskumena izango da arau-haustek izapidetzea eta ebatzea, eta oso arau-hauste larriak gaien eskumena duten Eusko Jaurlaritzako organoei egokituko zaizkie, zehapenaren zenbatekoaren arabera; bai eta Udalak inhibituz gero ere, betetzeko errekerimendua egin ondoren.

Zehatzeko prozedura: 62. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko Legearen arabera izapidetuko dira.

Behin-behineko neurriak: 63. artikulua.- Organo eskudunek, interesdunei entzun ondoren, behin-behineko neurriak har ditzakete ebatz daitekeena eraginkorra dela ziurtatzeko: ikuskizunerako edo jarduerarako lizentzia edo baimena etetea, eta hura debekatzea, establezimendua ixtea, ondasunak konfiskatzea edo zigilatzea, hala nola sarrerak edo salmentako nahiz birsalmentako dirua, fidantza ematea, edo neurrizkoa, egokia eta beharrezkoa den beste edozer.

Funtzionario ikuskatzaileek ohiz kanpoko kautelazko neurriak hartzea: 64. artikulua.- Salbuespen moduan, arau-haustearen eraginak iraun ez dezan, eta pertsonen nahiz ondasunen segurtasuna bermatzeko, funtzionarioek ezarri ahal izango dituzte neurri horiek, interesdunei entzun gabe, baldin eta zuzenean antzematen badituzte legez kontrako balizko egintzak beren zeregin espezifiko betetzean; orduan, aktan jasoko dituzte, prozedura



premiaz hasiko da, eta titularrak neurriak baliogabetzeko, mantentzeko edo aldatzeko aginduko du, baina betiere iraungi egingo dira, lau eguneko epean ez bada hasten zehapen-prozedura.

Arau-hausteen eta zehapenen erregistroa:

65. artikulua.- Erregistro autonomiko bat sortzen da, ebazpen irmo bidez ezarritako zehapen eta arau-hauste guztiak jasotzeko. Arau-hauste batzuei jarritako zehapena bertan behera utzi bada, arau-hauste horiek ez dira kontuan hartuko, arau-hastea berriro egin ote den edo horretan berriz erori ote den zehazteko.

9. Azken zatiak bi xedapen gehigarri, zazpi iragankor, indargabetzaile bat eta lau azken xedapen dauzka.
10. Lehen xedapen gehigarriaren izenburua da "Kiroleko indarkeriaren kontrako Estatuko arauen aplikazioa", , eta, hark xedatzen duenaren arabera, gertaera jakin batzuk kalifikatu eta zehatu nahi direnean jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legea nahiz kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako Estatuko legedia erabil badaitezke, azken hori erabiliko da, espezialitate-printzipioa betez.
11. Bigarren xedapen gehigarriak jarduera sailkatuen lizentziari lotutako establezimenduen arautzea kontuan hartzen du, eta, bestalde, legean xedatutako baldintza eta betebeharrak ezartzen dizkie udalek berek antolatutako ikuskizunei eta jardueri.
12. Lehenengo xedapen iragankorrek "Araubide iragankorra" du izena, eta xedatzen duenez, "lege hau garatzeko arauak indarrean jarri bitartean, gaur egun indarrean dauden aplikatuko dira, lege honetan esaten denaren kontra ez baldin badoaz behintzat".
13. Bigarren xedapen iragankorrek, "Lizentziak eta baimenak", izenekoak, ezartzen du legea indarrean sartu aurretik aurkeztutako lizentzia eta baimen guztiak eskatu ziren unean indarrean zegoen araudiak arautuko dituela.
14. Hirugarren xedapen iragankorraren izenburua da "Baimendutako edo gaitutako zerbitzuak ematen dituztenei legea aplikatzea", eta, hari jarraiki, aurretiko administrazio-baimenaren ordezkari jakinarazpena aurkeztu beharko dela ezartzen duten xedapenak aplikagarri izango zaizkie baimendutako edo gaitutako zerbitzu-emalderi, eta ulertuko da emandako baimenak edo gaikuntzak automatikoki ordeztzen duela aurretiko jakinarazpena.



15. Laugarren xedapen iragankorrak, "Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua" izenekoak, xedatzen du Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilu berriari dagokion araubidea erregelamendu baten bidez arautu bitartean indarrean jarraituko duela 4/1995 Legeak ezarritako araudiak, kontseiluaren osaerari eta funtzionamendu-araubideari dagokienez.
16. Bosgarren xedapen iragankorrak, "“Fidantzen zenbatekoa” deritzonak, ezartzen du zer fidantza eratu behar dituzten –behin-behingo eta erregelamendu bidez garatu bitartean– ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzen dituztenek, hori egitea beharrezkoa bada legearen arabera.
17. Seigarren xedapen iragankorrak "Zehapen-espeditateak" du izena, eta adierazten du legea indarrean sartu aurretik irekitako espeditateak haiek ireki zirenean indarrean zegoen araudiak arautzen dituela, arau berriari aurreikusitako arautzea espeditatuentzat onuragarriagoa ez bada behintzat.
18. Zazpigarren xedapen iragankorrak, "Barrakei legea aplikatzea" izenekoak, epe bat aurreikusten du haien titularrak egoki daitezen lege berriaren eskakizun eta egiaztapen teknikoetara.
19. Xedapen indargabetzailearen xedea: orain indarrean dagoen Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legea (JIJOL).
20. Lau azken xedapenei dagokienez, lehenengoan Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra aldatzen da, alde batetik, beste 4. atal bat gehitzen diolako 58. artikuluari, eta, bestetik, bestela idazten dituelako lege horretan "Sailkatutako jardueren eta instalazioen zerrenda" izena duen eranskineko (bigarreneko) A) idatz-zatiko 15. eta 16. atalak.
21. Azken xedapenetako bigarrena hau da: "Tasei eta prezio publikoei buruzko legearen aldaketak"; aldaketa bat egiten du irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bateginaren 104. artikuluan (zergapeko egitatea), zertarako eta tasa bat kobratu ahal izateko Ertzaintzak ikuskizunetan eta jolas-jardueretan zaintza- eta babes-zerbitzuak emategatik; testu bategin bereko 107. artikulua aldatzen du (kuota), eta izen berria ematen dio: "Trafikoari, jokoari, ikuskizunei, larrialdiei eta segurtasunari dagozkien tasak"; eta beste VI. kapitulu bat gehitzen dio V. tituluari izen honekin: "VI kapitulu. Tasa Ertzaintzak zerbitzu bereziak emategatik".
22. Hirugarren azken xedapena hau da: "Zehapenen zenbatekoak eguneratzea"; ahalmena ematen dio Jaurlaritzaren Kontseiluari zehapenen zenbatekoak eguneratzeko edo berraztertze, behar bezala arrazoituta gokitasun-irizpideak oinarri hartuta.



23. Laugarren azken xedapenaren gaia hau da: "Indarrean jartzea"; berehalakoa izango da.
24. Eranskin bat ere badu aurreproiektuak, jendaurreko ikuskizunen, jolas-jardueren eta establezimendu publikoen katalogoari buruzkoa.

III **ESKUMEN-TITULUA**

25. Lege-aurreproiektuaren beraren izenburutik eta artikuluetatik ateratzen denez, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren eskumen-alorra zedarritzen du, oro har, aztergai dugun erregulazioak.
26. Beren-beregi aitortu zaio eskumen hori EAERI autonomia-estatutuaren (EAEE) 10.38 artikuluan, eskumen eskusiboa aurreikusitako baitu ikuskizunen alorrean.
27. 18/2012 Irizpenean gogoratu dugunez, gai berari buruzkoa baita, eskumen horrek jolas-jarduerak ere hartzen ditu barne, Konstituzio Auzitegiak otsailaren 27ko 46/2001eko autoan adierazi zuenez.
28. Gaiaren erregulazioak hasiera-hasierako arauetatik (bai Estatukoak: 2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretako Poliziaren Erregelamendu Nagusia onartzen duena; bai autonomikoak: 4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituena, indarrean baitago) hartu ditu barne hainbat alor, hala esparru orokorra ezartzei buruzkoak, nola objektuaren (ikuskizun, jarduera eta establezimendu publikoak), subjektuen (antolatzaileak, jarduleak, ikusleak edo hartzaileak) eta antolamenduaren gainekoak. Ildo beretik, administrazioaren esku-hartzearen araubideari eta kontrolari buruzkoak, oinarri emanez horrela administrazio-jarduketa askori, hainbat eremutan, gune eta lokal publikoetan egiten diren era guztietako ikuskizunei dagokienez: instalazioen establezimendua, jarduerak egiteko baldintzak, beharrezko administrazio-tituluen ordenazioa eta ikuskatze- eta zaintza-jardueren erregulazioa, eta zehapen-ahala egikaritzea.
29. Guztiarekin ere, gai honek ezaugarritzat du beste batzuk ere batzen zaizkiola, zeharka, eta, beraz, beste eskumen-titulu batzuk ere tartekatzen zaizkiola. Lege-aurreproiektuak bere erregulazioan aitortu du —29.1 artikulua, adibidez— eskumen-tituluen arteko lotura hori, eta esplizituki zein inplizituki jotzen du, zenbaitetan, sektore-arauetara. Horregatik, egoki da EAERI Autonomia Estatutuaren eskumen-titulu hauek kontuan hartzea eta aipatzea: barne-merkataritza (10.21 artikulua), kontsumitzailearen defentsa (10.28 artikulua), kultura (10.17 artikulua), historia-, arte- eta monumentu-ondarea (10.19 artikulua), kirola, aisia eta olgeta (10.36 artikulua), kasinoak, jolasak eta apustuak (10.35 artikulua), industria (10.30 artikulua), haur- eta gazte-politika (10.39 artikulua), ingurumena (11.1.a artikulua), hirigintza eta lurraldearen antolamendua (10.31 artikulua), publizitatea (10.27 artikulua), autogobernu-



erakundeen araubide juridikoa (10.2 artikulua), administrazio-prozedura (10.6 artikulua), toki-araubidea (10.4 artikulua), barne-osasuna (18. artikulua), higiena (10.15 artikulua), segurtasun publikoa (17. artikulua) eta turismoa (10.36 artikulua).

30. Dena dela, eta ulergarria bada ere legegileak kautelaz jardutea zirkulua ulertzeko legeak hartzen dituen esparruei dagokienez, eta bazter utzi gabe aipatu gainerako tituluetakoz batzuek laguntza zehatzagoa eman dezaketela agindu jakinen bat oinarritzean, esan daiteke ezen, aurreproiektuaren xede-helburuak ikusita (71/1997 KAE), erregulatutako gaiak ardatz nagusitzat duela EAEEn aipatu 10.38 artikuluz ezarritako eskumena, eta berez ematen duela eskumen-euskarri aski erregulazioari ekiteko.
31. Ikuskizun- eta jolas-jardueren alorreko estatu-eskumenari dagokionez, aipatu beharrekoa da, lehenik, Konstituzioak (EK) ez duela gaiari buruzko berariazko aipamenik, eta horrek bide ematen duela –EKren 149.3 artikulua bitartez– autonomia estatutuek –EAE barne–eskumen eskusibotzat hartzeko. Horrek ez du eragotzi, hala ere, Estatuaren esku-hartzea, beste eskumen-titulu batzuk baliatu baititu, segurtasun publikoarena batez ere (EKren 149.1.29 artikulua).
32. Hain zuzen ere, eskumen-titulu horrek oinarritu zuen mugatzea gaiari buruzko estatutu-eskumena, zegokion eskualdatze-dekretuan (2585/1985 Errege Dekretua) agertu zena, lehenago oinarritu zuen bezala aipatu 2816/1982 Errege Dekretuak, abuztuaren 27koak, jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretako Poliziaren Erregelamendu Nagusia onartzen duenak, eman zuen erregulazioa. Erregelamendu hori, gogora dezagun, indarrean dago egun, oraindik ere, baina, gure kasuan, arau autonomikoez baztertu dutela jo dezakegu.
33. Titulu horrek berak oinarritu du 1/1992 Lege Organikoak, otsailaren 21ekoak, herritarren segurtasuna babestekoak, gaiari buruzko aurreikuspena sartzeko (8. artikulua), eta, zehatzago, Estatuaren esku-hartzea kirol-ikuskizunetako indarkeriari buruzko erregulazioan: aurreproiektuak berak aurreikusi baitu berariaz orain aztertzen ari garen arauaren eta estatuko legearen arteko erlazioa (lehenengo xedapen gehigarria).
34. Nolanahi ere, argi utzi behar da interpretazio murrizta eman behar zaiola EKren 149.1.29 artikulua dakarren segurtasun-kontzeptuari, eta segurtasun-kidego eta -indarrei segurtasun publikoaren alorrean dagozkien jarduketetara mugatu. Horrenbestez, kontzeptu horretatik atera behar dira administrazio-jiteko eginkizun batzuk; hain zuzen ere, lokal publikoetako jarduerak zuzen garatuko direla, eta ikuskizunak egiten diren instalazioak zuzen daudela bermatzeko xede dutenak.
35. Bi tituluen arteko zedarritzea behar bezala egite aldera aipa daitezke Konstituzio Auzitegiaren 25/2004 epaiaren hurrengo pasarteak:



“Honaino iritsita, nahitaez abiatu behar dugu «segurtasun publiko» kontzeptuaz prestatu dugun doktrinatik, kontzeptu horretaz adierazia baitugu jada «pertsonek eta ondasunak babesteari eta lasaitasuna eta ordena publikoa mantentzeari dagokion oro hartzen duela» (104/1989 KAE, ekainaren 8koa [RTC 1989, 104] , 3. OJ; bertan aipatzen dira, baita ere, epai hauek: 33/1982 KAE, ekainaren 8koa [RTC 1982, 33] ; 117/1984, abenduaren 5koa [RTC 1984, 117]; 123/1984, abenduaren 18koa [RTC 1984, 117]; eta 59/1985, maiatzaren 6koa [RTC 1985, 59]); 104/1989 epai horretan bertan eta aipatu oinarri juridiko berean zehazten da gai horren barruan «jardun asko eta askotarikoak sartzen direla, hala izaeraz nola edukiz askotarikoak, nahiz eta xede bera duten guztiek, alegia, ondasun juridiko horiek zaintzea». Dena den, zorrotzago ere zedarritu dugu «segurtasun publikoaren» kontzeptua: gure 148/2000 epaian, ekainaren 1ekoan (RTC 2000, 148), 6. oinarri juridikoan (59/1985 epaiaren [RTC 1985, 59], 2. oinarri juridikoan esandakoa jaso baikenuen) baieztatu genuenez, pertsona edo ondasunen segurtasuna lortzeko edota segurtasun horri eusteko arauteria oro ezin da segurtasun publikoaren eremuan sartu; izan ere, hala balitz, ordenamenduko ia-ia arau guztiak izango bailirateke segurtasun publikokoak. Argi dago, ordea, kontzeptu murriztagoa dela, zeinean kokatu behar baitira xede horretarako tresna gisa baliatzen diren erakunde edo antolamenduak, eta, bereziki, EKren 104. artikulua aipatzen dituen segurtasun-kidegoak (RCL 1978, 2836 —6. OJ).”

36. Onartu egin behar da, hala ere, segurtasun publikoaren kontzeptua urrutirago ere joan daitekeela, batzuetan, eta polizia-zerbitzuaren zentzu funtzionalera, ez bakarrik organikora, hurbildu:

«Segurtasun publikoaren» kontzeptua zehazteko ildo horretatik beretik, Auzitegi honek 148/2000 epaian (RTC 2000, 148), 6. oinarri juridikoan, adierazi zuen kontzeptu horren arau-eremua «segurtasun-poliziaren» esku-hartzeetatik harago joan daitekeela, hau da, segurtasun-indar eta -kidegoek berezko dituzten funtzioetatik urrutirago; egin-eginean ere, «polizia-jarduketa horiek, zentzu hertsian, edo polizia-zerbitzu horiek oso garrantzizkoak izan arren, ez dute segurtasun publikotzat jo behar denaren eremu materiala agortzen... Segurtasun-indar eta -kidegoei dagozkienez bestelako alderdi eta eginkizunak, beste organo eta agintaritza administratiboak esleituak... ere sartzen dira, zalantzarik gabe, eremu material hartan (104/1989 KAE, ekainaren 8koa [RTC 1989, 104], 3. OJ)». Eta zenbait kasutan aplikatu dugu irizpide hori, «segurtasun publikoari» buruzko interpretazio murriztailea aintzat hartuta beti. Adibidez, «babes zibilean», askotariko jendebaliabideak, eta ez bakarrik poliziak, elkartu eta abiaraztea eskatzen baitu, helburuak



erdietsiko badira (KAEak: 123/1984, abenduaren 18koa [RTC 1984, 123], eta 133/1990, uztailaren 19koa [RTC 1990, 133]); edota estupefaziante eta psikotropiko jakin batzuekin, «segurtasun publikoa» eta «justizia-administrazioa» gaietan sartzen baitira horiek zaintzea, garraiatzea eta, hala bada, suntsitzea (KAE: 54/1990, martxoaren 28koa [RTC 1990, 54]). Baina kasu biek dute ezaugarri, hain zuzen ere, pertsona eta ondasunentzako arrisku larriak sortzeko egoerak edo produktuak ukitzea, eta intentsitate bereziko neurriak hartzea eskatzen du horrek.

«Segurtasun publikoaren» kontzeptua murrizteko ideia hori hartu dute goiburutzat 1/1992 Lege Organikoan (RCL 1992, 421), zeinaren azken xedapenetan lehenak baitio EKren 149.1.29 artikulua segurtasun publikoaren alorrean Estatuari esleitu eskumena egikaritzuz eman dutela, helburu hauekin eman ere: «herritarren arteko bizikidetzaz ziurtatzea, indarkeria eraztea eta bide eta gune publikoak era baketsuan erabiltzea, baita delituak eta faltak egitea galaraztea ere» (1.2 artikulua). Hartara, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoak mugatu egiten du, nolabait, bere erregulazioa; mugatu ere, zioen adierazpenean orokorrean dioenez, administrazio-agintaritzen ardura-eremua ezartzera zenbait alorretan: arma eta lehegailuen fabrikazioa, merkataritza, edukitza eta erabilera; jende-pilaketak ikuskizunetan; espainiarren eta Espainian dauden atzerritarren dokumentazio pertsonala; eta segurtasun-indar eta -kidegoentzako interes eta erantzukizun berezia duten jarduerak. Hau da: legeak, funtsean, barne hartzen ditu pertsonen eta ondasunen segurtasunari zuzenean eta larriki eragiteko moduko benetako arriskuak sor ditzaketen gai zehatzak, bereziki aintzat hartuta «mehatxuak, derrigortzeak edo ekintza biolentoak agertzea ekar dezaketen fenomeno kolektiboak, zerbitzu publikoen funtzionamenduan eta herritarren bizitzan ondorio larriak izan ditzaketenean» (zioen adierazpena); baina ez du bere erregulazioa hedatzen segurtasun publikoarekin zerikusi lausoagoa izan dezakeen edozein jarduerataraz. (25/2004 KAE, 6).”

37. Segurtasun publikoaren tituluak aurreproiektuan jorratu duten ikuskizunenarekin izan ditzakeen erlazioa, nolahi ere, argituta gera daiteke hainbatetan aipatu dugun epaiaren hurrengo pasartearekin:

“Antzeko kasua planteatzen da jendaurreko ikuskizunen administrazio-polizia dela eta; egin-eginean ere, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoak, jendaurreko ikuskizunei dagokienez, pertsonen eta ondasunen arriskuak edota elkarbizitza baketsuari nahasteak ekar diezazkieketen alderdi guztiz ere larriak baino



ez ditu hartu behar, bai baitaude, aldi berean, «herritarren segurtasunetik» at gelditzen diren beste alderdi batzuk. Hala azpimarratu zuen Auzitegi honek ekainaren 1eko bere 148/2000 epaian (RTC 2000, 148), kirol-ikuskizunetan indarkeria prebenitzeko erregelamenduari buruzko eskumen-gatazka bati buruz eman baitzuen, bertan aztertuta “segurtasun publikoaren” eremuko alderdien eta “ikuskizun publikoen” eremuko arteko bereizketa. Zehazki, azken gai horren barrukotzat jo genituen «xedapen batzuk; hain zuzen ere, horien [ikuskizunen] ordena egokia begiratzuz, pertsonen eta ondasunen babesera bideratzen direnak, “administrazioaren ohiko esku-hartzea normala eta etengabea—erabilita” (313/1994 KAE, azaroaren 24koa [RTC 1994, 313], 6. OJ)»; laburbilduta, «ikuskizunen poliziaren ezaugarria da bere neurri edo xedapenek ikuskizunaren edo ekitaldiaren garapen ordenaturako bide ematen dutela, dena delako ikuskizunaren nolakotasunaren arabera, aparteko edo ohiz kanpoko neurrietara jo gabe; izan ere, xedapen edo neurri arrunt horiek aski ez direnean garapen ordenatu hori bermatzeko, “segurtasun publiko” hertsiko neurrietara jo beharko baita (54/2004 KAE, martxoaren 28koa [RTC 1990, 54], 3. OJ)» (10. OJ) (25/2004 KAE, 7).”

38. Antzeko irizpide zedarritzaileak jasotzen dira oraintsuagoko epai batean, 2014ko maiatzaren 29ko Konstituzio Auzitegiaren Epaian, zeina Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen azterketari buruzkoa baita; izan ere, haren esparru zabalaz dio, besteak beste, barruan hartzen duela ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren gai zehatza, segurtasun publikoa zaintzea baitu azken xede komuna.
39. Jarraian, ikusirik aurreproiektuak udalerriei, udalei zehazki, ematen dien garrantzizko zeregina, egoki deritzogu EAEk toki-araubidearen alorrean dituen eskumenak aipatzeari, labor bada ere, zertarako eta zehaztu ahal izateko aztertzen ari garen lege-aurreproiektuak errespetatzen dituen ala ez autonomia-estatutuak xedatu dituenak eta EKren 140. artikulua toki-autonomiari eskaini dion erakunde-bermea.
40. EKren 140. artikulua aitortu toki-autonomiaren ezaugarri eta betekizunei eta formulazioari buruz, egoki da azpimarratzea atera daitezkeen konstituzio-irizpideak, hots, toki-erakundearen ezagungarritasuna eta toki-erakundearen izaerari berari eragin ahal izatea, eta toki-erakundeek badutela eskubidea berezko dituzten interesetan modu eraginkorrean esku-hartzeko; izan ere, toki-erakundeek badituzte interes batzuk, auzotarrenak alegia, Estatuarenez eta autonomia-erkidegoenez bestelakoak eta bereizgarriak, nahiz eta interes publiko guztien bilbearen barruko izan.
41. Kontuan hartuta, bestalde, zer eskumen aurreikusten diren Autonomia Estatutuan toki-araubideaz nahiz hari lotutako beste gai batzuez den bezainbatean, eta zer



xedapen jasotzen diren toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean —Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak oraindik orain ekarritako aldaketekin—, bereziki 25. eta 26. artikuluei dagozkienak (artikulu horietan adierazten da, hurrenez hurren, zer eskumen eta gutxieneko zer zerbitzu esleitu behar zaizkien sektoreka udal-erakundeei, haiek auzokoentzat erabil ditzaten), ikusten dugu arau batean zein bestean badaudela aurreikuspen batzuk lotura estua dutenak aurreproiektuak araututako gaiarekin: hala, egokia da azpimarratzea, berezkitzat hartutako eskumenen artean, hiriko ingurumen-eskumena eta soinu-, argi- eta atmosfera-kutsaduratik babestekoa; edo, bestela, udaltzaingoa, babes zibila, prebentzioa eta suteak itzaltzea.

42. Gainera, udalek eskuordetzearen bidez har ditzaketen eskumenen artean (27.3 artikulua), egokia da ikuskizun publikoen zehapena, ikuskapena, baimena eta jakinarazpena aipatzea. Aurrekoei, azkenean, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen 7.4 artikulua berriko zabaltze-bidearen bidez esleiri daitezkeen ekimen berriak gehi dakizkieke.
43. Alde batera uzten badugu zer interpretazio egin diren Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legeak eman zenean indarrean zegoen udalen eskumen-mailan izandako eraginaz, edo zer neurri hartu dituzten zenbait autonomia-erkidegok kasuan kasuko lurralde-esparruko tokiko aipatu eskumen-maila gordetzeko edo finkatzeko, badirudi aho batez (besteak beste, Administrazioekiko eta Autonomia Erregistroekiko zuzendariaren 2014ko martxoaren 11ko zirkularra, udal-eskumenak antolatze sistemari eta euskal foru-erregimenari buruzkoa, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean jarri ondoren) onartzen dela eraginkortasun txiki samarra izan dutela aipatu Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legearen aginduek EAEn eta hartako udaletan, lege horretan bertan jasotako salbuespenengatik, edo aurrez zeuden eta indarrean jarraitzen dutenengatik, lege horrek berak bai toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legean bai martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako toki-ogasunei buruzko legearen testu bateratuan aldaketak egin ondoren.
44. Gainera —ekimenaren sailak prozedura eta arau-eragina direla eta egindako memoriak gogorarazten duen bezala—, badirudi aurreproiektuak, funtsean, indarreko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legean jasotzen den eskumen-maila bera mantentzen duela EAeko udalerrientzat; eta zerbitzu horiek —dokumentu berak esaten du— orain arte finantza-iraukortsunean gorabeherarik izan gabe eman dira; horregatik, pentsa daiteke eskumen-esleipenaren doitze aurreikusgarria egin daitekeela Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legean adierazitako irizpideak kontuan hartuta.



45. Osterantzean, aurreproiektuaren xedapenak gainera baino ez bada ere aztertuta ikus daitekeenez, badu aurreikuspenik aski zenbait esparrutan (gaiaren inguruko eskumenak, administrazioen arteko harremanak, lankidetzaren organoetan parte hartzea, araugintza-ahala baliatzea, edo ikuskaritza- eta zehapen-araubidean parte hartzea), hauxe ondorioztatu ahal izateko: lege-aurreproiektuaren erregulazioak erabat errespetatzen du estatutu-xedapenek toki-araubideari emandako taxua, eta, beste alde batetik, guztiz bermatzen du toki-autonomia.

IV PROIEKTUAREN PRESTAKUNTZA ETA IZAPIDETZEA

46. Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak (Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko Legea, aurrerantzean XOEPL) ezarritakoaren arabera aztertu behar da arau-ekimena prestatzeko baliatu duten prozedura, lege-lerruneko xedapenetarako ere interesgarri delako.
47. Prozeduraren hasieratik, ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legeak ezarritako egungo araubidea erreformatzeko arrazoien memoria tekniko zabala prestatu zen, eta bertan aipatu ziren bai lege hori eman zenetik gertatu kultura-aldaketak, bai Administrazioak alor horretan esku hartzeko izan beharreko ikuspegi berria, ikuskizunen edukien kontrol- eta sustapen- testuingurutik ekonomia-, kultura- eta aisia-askatasunak zaintzeko testuingurura aldatu baikara.
48. Prozedura abiarazteko aginduak atal bereizitan adierazi ditu prozedurari ekiteko agindua emateko eskumena, proiektuaren bideragarritasun juridikoa eta materiala, proiektuaren helburu-xedeak, ordenamendu juridikoan duen eragina, aurrekontu-eragina, eta XOEPLren 5. artikuluari jarraiki araua onartu aurretik bete beharrekoak.
49. Proiektua idatzi —ele bitan, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioari jarraiki— eta hasieran onartu zen, XOEPLren aurreikuspenen arabera; zehazki, haren 7. artikuluen arabera.
50. Ekimena abiarazi duen sailaren txosten juridikoak zehatz eta zabal aztertu ditu aurreproiektuaren aurrekariak eta eskumen-alderdiak, eta artikuluen kontu nabarmenenak azpimarratu, hala nola erregulazioaren objektua zedarritzea, edota aurreproiektuak Administrazioaren esku-hartzeaz dakartzanak konparatzea Europako edo Estatuko arauekin, errespetatu beharrekoak baitira.
51. Aurreproiektua jendaurrera atera zen, aldizkari ofizialean argitaratuta, eta alegazioak aurkezteko hogeiei eguneko epea ireki zen; gainera, testua sail sustatzailearen egoitzan eta Eusko Jaurlaritzaren atari elektronikoan ezarri zen.
52. Memoria ekonomikoa ere prestatu zen, eta bertan hainbat alderdi jorratu ziren aurreproiektuak gastuetan izan zezakeen eragin positiboaz zein negatiboaz, hala



Administrazioak esku hartzeko araubideak aldatzeagatik, nola aurreproiektuan aurreikusitako tasa edo fidantzen aplikazioarengatik, eta azaldu zen EAeko Administrazio Orokorren zer aurrekontu-partida eta diru-sarrera gerta zitezkeen ukituta, zer eragin izan zezakeen ogasunean edo programa ekonomikoetan, eta, azkenik, beste administrazio publiko batzuetan, tokikoan adibidez, edo gizartean bertan, zer eragin ekonomiko izatea aurreikus zitekeen.

53. Beste memoria ekonomiko bat egin zen, tasa eta prezio publikoen legeari dagozkion arau-aldaketei buruz, honako hauekin: araugintza konparatuaren azterketa; ekitaldien antolatzaileek izan ditzaketen baliabideak; egokitutako jurisprudentzia; kostu-etekin azterketa; eta egin beharreko proposamena.
54. Genero-eraginari buruzko txostena ere landu zuten.
55. Espedientean zenbait txosten daude, eta haien egileak, besteak beste, hauek dira: Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza (iradokizun batzuk egiten ditu); Kontsumoko Kontsulta Batzordea (ez da jasotzen espedientean, baina, prozedurazko memoriaren aipamen bidez, esaten da aldeko irizpena eman duela, bi ohar eginda ere); Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua, akta bat barne hartuta, zeinean haren aldeko irizpena jasotzen baita, hala nola zenbait iritzi testuari buruz (gazteen lokalak, barrakak eta “kale-zurruta”).
56. Emakundek, bere txostenean, zenbait proposamen egin zituen gai honetako kontsulta-organoan parte-hartze orekatua izateari eta haren eginkizunei buruz, eta eskatu zuen zehatzago jasotzeko zer parte-hartze duten generoek ikuskizunetan, jardueretan eta izaten diren zehapenetan.
57. Gizarte eta Ekonomia Kontseiluak ere txostena egin zuen. Proiektu gisa zegoen legearen onarpenean gertatutako atzerapena gogorarazi zuen, aurreko batean jakinarazi zuen bezala (gure 119/2012 Irizpenari dagokion aurreproiektua), eta geroago hainbat datu eman zituen sektoreko jarduerak Estatuan eta EAEn izandako konparaziozko bilakaerari buruz; gainera, egokitzat jo zuen aurreproiektuaren izapidea, testuaren aurreikuspenei buruzko gogoeta espezifiko eta oso zehatzak egitea bazter utzi gabe.
58. Kontsumobide organoak ere esku hartu zuen: iradokizunak egin zituen informazio- eta publizitate-dokumentu komun bat egiteaz, eta gazteen adina gutxitzea iradoki zuen, aurreproiektuaren arautze-ondorioetarako.
59. Jendaurreko informazioaren ondoriozko izapidean, alegazioak aurkeztu zituen ONCEk: itsuei edo beste edozein minusbaliotasunek eragindakoei informazioa emateko eskatu zuen.



60. Euskal Herriko Ostalaritza Federakundeak alegazioak aurkeztu zituen, eta proposamenak egin onartzeko eskubideari buruz, informazio-txartelak jartzeari buruz, ezarri beharreko ordutegiari buruz (lehentasunez, bat bakarra), gazteen adinari buruz, administrazioak esku hartzeko araubideari buruz (EUDELek proposatutakoaren ildotik), eta establezimenduen titularren portaera tipifikatzeko arazoei buruz.
61. Espedienteak egiaztatzen du testua EAEko udal guztiei igorri zitzaiela, eta Bilboko Udalak eta EUDELek proposamenak egin zituztela.
62. Bilboko Udalak uste du ez dela beharrezkoa egitea Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legean dagoena ez bezalako arau bat, zenbait lege (barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera) aldatzekoa den apirilaren 23ko 7/2012 Legeak eragindako aldaketaren ondoren; gainera, uste du ongi osatuta dagoela Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko Lege Orokorrean jasotzen diren titulu juridikoen bidez.
63. Horrenbestez, egokiagotzat jotzen ditu aurretiazko baimentze- eta jakinarazte-araubideak, eta bat etorrarazten ditu ingurumen-araudian jasotakoekin, edo toki-demanioaren erabilerari dagozkioneekin, azken gai horretan isiltasunak duen zentzu negatiboa azpimarratuta. Eteteko neurrien aurreikuspena zabaltzea iradokitzen du, ez bakarrik baimendutako jardueretara, bai eta aurretiazko jakinarazpenaren araubideak babestuta daudenetara ere. Arau-haustea tipifikatzeko iradokizunak egiten ditu, establezimenduen titulartasunari dagokionez; establezimenduetan armak izatearen debeku- eta kontrol-iradokizunak ere bai; hala nola kontsideroak edariak edateaz bide publikoetan; eta aurreproiektua berehala erregelamenduz garatzera premiatzen du.
64. EUDELek, alegazioetarako epea zabaltzeko eskatu ondoren (eskaera onartua), proposamen batzuk egin zituen, gomendatu zuen koherentea izatea toki-araubidearen oraintsuko erreformarekin, ordutegian egindako arau-haustea arintzak hartzea, eta zenbait iradokizun egiten zituen gai hauek zirela eta: berrerortzearekin zerikusia duen tipifikazioa mantentzea; konfiskazioa arautzea; edariak gune publikoetan hartzea; Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Kontseiluko toki-ordezkaritza; ezartzen diren tasen disuasio-eragina; eta toki-erakundeei esleitutako eskumen berrien finantzaketa posiblea.
65. Jendaurreko informazio-epean, herritar batek alegazio-idazki bat aurkeztu zuen, eta proposamen batzuk egin zituen, bai eta zenbait kontsiderazio ere; besteak beste, gai hauek aipatu zituen: establezimenduaren titularraren betebeharrak arautzea; erlijio-guneetan kultura-jarduerak bereizteko dagoen zailtasuna; onartzeko eskubidea zehaztea, eta sarrera ukatzearen ondorioak arautzea; adin txikikoentzako jardueren titulu juridikoa arautzea; kaleetan edariak eramatea debekatzea; udalak ez salbuestea jarduera-lizentziatik beraiek antolatutako jarduerengatik; era berean, jardueretarako



titulutik ez salbuestea lekua txikia izateagatik; kalte-ordainik eza zehaztea, titulu juridikoak baliogabetzean; establezimendu-lizentzia jarduera-lizentziarekin bat etorraraztea; behin-behineko lizentzia izena ematea funtzionamenduan jartzeko aukera ematen duenari; behar direnak argitzea, berekin instalazioak aldatzea edo ez aldatzea ekarriz gero; subrogazio-kasuak argitzea Udalak ikuskatzeko eskumenetan; ikuskaritzaren *in situ* errekerimenduak arautzea; jarduera-lizentziarik gabeko lokalen arauketa aurreikustea; tituluaren iraungipena aurreikustea, jarduera sei hiletik gora eteteagatik; eta legearen berehalako garapena burutzea.

66. Sailei dagokienez, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak alegazioak aurkeztu zituen, eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren esparruko jarduketak sailkatutako jardueren artean jasotzea onartu zuen, bai eta jarduera haien bilakaera sektore horretako titulu juridikoekin babestea ere. Hala ere, sailak iradokizun batzuk egin zituen: baliabideak izatea sailkatutako jardueren araubideari lotutako kasu berriei erantzun ahal izateko; bestela idaztea artikulua jakin bat (aurreproiektuaren 29. artikulua); bestela izendatzea establezimenduari eta har daitezkeen neurriei buruzko txostena, jardueren araudian aurreikusitakoekin ez nahasteko; berariaz aipatzea ikuskizunei buruzko araudia Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko Lege Orokorraren artikulua egokiaren aldaketan; Eusko Jaurlaritzak txosten bidez esku hartzea ikuskizunen esparruko jarduera-kasu guztietan, eta ez soilik gutxi batzuetan; ikuskizunen esparruko txostena emateko aurreikusitako epea laburtzea; finkoak ez diren ikuskizunak ez hartzea esku hartzeko araubide sinplifikatuari lotutzat, eta barraka nahiz atrakzioenaren parekotzat hartzea; terrazen gaikuntza sailkatutako jardueren araubidean sartzea; jokabide jakin baten tipifikatze bikoitza ez egitea; zarataren kontzeptua behin eta berriz ez aipatzea, sailkatutako jarduera bati dagokiolako; aurretiazko jakinarazpen-ereduaren zehaztapena udal-eskumenari esleitzea; udalen zehapen-eskumena autonomiarenetik bereiztea; eta zezen-ikuskizunak instalazio finko eta iraunkorretan egiten direnetara mugatzea.
67. Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Administrazioako Zuzendaritzak irizpena eman zuen arautu beharreko esku-hartze araubideengatik eta Ertzaintzak eman beharreko zerbitzuengatik tasa berria ezartzeari buruz, eta honako hauek iradoki zituen: tarifak aldatzea, tasen titulazio berria, eta polizia-zerbitzuek igorritako likidazioetan kontuan hartu beharreko irizpidea (ekintzan parte hartzen duen agente-kopuruaren kuantifikazioa).
68. Prozedurazko azken memoriak egindako izapideen eta jakinarazpenen berri ematen du, eta adierazten du zein izan zen Kontrol Ekonomikoaren Bulegoaren Zuzendaritzaren txostena emateko itxarondako epea; hura gaingiduta, izapidea betetzat hartu zuen.



69. Aurkeztutako alegazioen izapidearen garapenari eta izapideak izandako ondorioei dagokienez, esku hartu duten eragile publiko eta pribatuek izapidean zehar egindako oharpenei buruzko iruzkina jasotzeaz gain, beste alderdi batzuk ere jasotzen ditu, nabarmen jaso ere, aurreproiektua indarrean jartzeak izan ditzakeen era guztietako ondorioak aztertzeko, edo, are gehiago —hark enpresa-sektore batean daukan dudarik gabeko eragina kontuan hartuta—, enpresa-eraginari buruzko txostena betetzeaz uler daitekeenaren ondorioetarako (txosten hori Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoa den ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan dago aurreikusita).
70. Ondorioz, azkenean aintzat hartu ez diren proposamenek merezi izan dituzten erantzun arrazoituak jasotzen dira txostenean, eta, bestalde, aurreproiektuko aginduen deskribapen zehatza jasotzen da, onartutako alegazioak eta iradokizunak gehitu ondoren adierazita geratu diren bezala.
71. Aipatu eragin-txostena zenbait ataletan dago banakatuta. Lehenengoa arauen gainekoa da: eskumen-alderdien berri ematen du, eta aurreproiektuari haren lantze-prozesu betean eragin dioten toki-araubidearen legezko erreformak gogorarazten ditu; eragin horrek, ordea, ez du eraginkorki mugatu eskumenak udalei esleitzea.
72. Hala ere, onartzen du udal-esparru horretan aldaketa garrantzitsu bat gertatu dela aurreproiektuaren hasierako ikusmoldean, parte hartzeko garatutako izapidearen ondorioz gertatu ere, udal-eskumena mantentzearen aldekoa izan baita, baina horrek ez du desagerrarazten beste erakunde batzuen esku-hartzea, gaian zaindu behar diren tokiz gaindiko interesengatik (hirigintza, ingurumena, demania), eta aitortzen da azkenean mantentzen den udalen eskumen-maila indarreko legedian esleitu ohi denaren parekoa dela.
73. Txostenak alderatuta aztertzen ditu, alde batetik, aurreproiektuko araubideak eta, bestetik, behetik gora antolatzen diren edo aurreproiektua emateko kontuan hartu behar diren legeetan aurreikusten diren irizpideak eta printzipioak (17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzkoa; 2/2011 Legea, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa; 12/2012 Legea, abenduaren 26koa, merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa; 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, Merkatuaren Batasuna Bermatzeko dena; Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legea); eta ondorioztatzen du aurreproiektua bateragarria dela aurreikusitako arauketarekin, bai establezimenduak irekitzeari dagokionez, bai ikuskizunak egiteari dagokionez.
74. Aldeko ondorio berak ateratzen dira aipatu txostenean erreferentziazko beste parametro batzuez den bezainbatean —segurtasun juridikoa, eraginkortasuna, administrazio-kargak sinplifikatzea—, eta hori ordenamenduko gainerako sektoreekin halako koherentzia bat mantenduz lortzen da, aurretik zeuden arautze paraleloak kenduz (jarduerak eta ikuskizunak), nahiz eta sailkatutako jardueren artean jasotzen ez



diren kasu autonomo jakin batzuk mantendu arrisku-egoerengatik. Gaitzen duten tituluek mugagabeko indarraldia ematen dute orokorrean, ahitzekoak diren ekitaldiak babesten dituztenek izan ezik. Isiltasun positiboa aurreikusten da orokorrean, demanioaren araubidean izan ezik.

75. Beste kontsiderazio batzuetan zenbait alderdi aztertzen dira, hala nola Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Kontseiluaren osaera, zeinean inplikaturako sektorearen parte-hartzea ez baita debekatzen, haren zereginak informatzaile hutsak izateagatik; fidantzen edo aseguruaren bermeak ez dituzte soil-soilik eta ezinbestean eman behar zedarritutako lurralde-esparru bateko emaileek; aurreikusitako mugaketa batzuk (distantziak, kokapenak, mugikortasun-zerbitzuen ezarpena, segurtasun- edo osasun-prebentzioak) arrazoitu egiten dira, baina horrek berekin ekarri gabe emaile jakin batzuen bideragarritasun ekonomikoa babesten dela; ez da kuantifikatzen zenbat langile izan behar diren kontrol-zerbitzu jakin batzuk emateko, eta ez da zehazten zer lotura izan behar duten emailearekin; emaileen jarduerak ez dira mugatzen, eta ez zaie prestazio berririk ezartzen.
76. Eskumenei dagokienez, txostenak honako hauek aldeztu ditu: eskumenen mugaketa errespetatzea gaian esku hartzen duten erakunde publikoen artean; bikoiztasunik ez sortzea; eta finantza-iraunkortasunerako betebeharrak eta kontrolak betetzea.
77. Ekonomia- eta aurrekontu-alderdien azterketak ekonomia orokorrari erreparatu dio, prezioei, produktibitateari, enpleguari, kontsumitzaileei, Europako eta beste leku batzuetako ekonomiari eta enpresa txiki eta ertainei dagokienez. Merkatuko lehiakortasunaren azterketak arauak dakartzan zenbait alderdi kontuan hartzen ditu, hala nola pizgarriak sortzea, ziurtasuna ematea, administrazioaren esku-hartzea arrazionalizatzea, prozedurak sinplifikatzea, sektorean sartzeko kostuak ez igotzea eta prezioak ez kontrolatzea. Ezinbesteko arrazoi batzuek justifikatzen dituzte ordutegi-mugaketa, edo beste batzuk segurtasunagatik eta osasungarritasunagatik. Ez dago sustapen-murrizketarik, ez eta diskriminaziorik ere operadoreen artean.
78. Kargei dagokienez, haiek zehaztu, haien esparrua mugatu, eta sailkatu ondoren, banakatu egiten dira, titularrek identifikazioa eta helbidea emateko egin beharreko jakinarazpenarekin hasiz; irisgarritasun-instalazioak egokitzea; erreklamazio-orriak, plakak, kartelak izatea; informazioa erakustea; adin txikikoen babesa; laguntzeko eta larrialdietako zerbitzuak aurreikustea; aseguruak eta fidantzak ematea; autobabes-, zaintza- eta kontrol-neurriak hartzea; osasun-laguntza; mugikortasun-azterketa; eta tasa segurtasun publikoko zerbitzuengatik.
79. Kargen balorazio ekonomikoak honako hauek biltzen ditu: presentziazko aurkezpenaren kostua; aurretiazko jakinarazpen-izapidea edo erantzukizunpeko adierazpena, antzeko ondoriokoa; proiektuena, txosten teknikoena edo memoria; erabilera telematikoa. Aurretiazko komunikazioa, arau orokor moduan, jasotzeko



dakarren minorazioaz gogoetatzen da, jardueraren hasieraren aurreikusgarritasunean dituen ondorioak eta finantza-kostu txikiagoak direla eta.

80. Aurrekontu-ondorioei dagokienez, pentsatzen da kudeaketa-, izapidetze- eta ikuskatze-prozedurak hobetu egingo direla. Gastu-sailak, tasengatik aurreikus daitekeen diru-sarrera eta zehapen ekonomikoak zehazten dira, bai eta tasa horien kalkulu ekonomikoa ere.
81. Beste herri-administrazio batzuetan izango duen eragin ekonomikoaren azterketan, lehendabizi, gogora ekartzen da zer eskatuko duen toki-araubidearen arauketa berriak, adierazten da Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketari lotutako diru-sarreraren zer zati bideratuko den toki-mailara, eta esaten da ikuskizunen eta pareko sektoreen esparruko egungo zerbitzuen finantza-beharrak estaltzen dituela. Gaian gertatutako eskumen-finkapena gogorarazten du, hala nola aurreproiektuak maila bera mantentzen duela.
82. Genero-eraginari dagokionez, txostenak gogora ekartzen du sektorean, lanaren banaketan bezala aisialdiaz gozatzeko aukeran ere, egoera ez dela batere zuzena. Adierazten du genero-dibertsifikazioa dagoela gizarte- eta kultura-aldetik, eta egoera hori orekatzeko arazoak nabarmentzen ditu. Aurreproiektuak genero-eragina nola tratatzen duen jasotzen du, zenbait arrazoi ematen ditu proposamen organiko batzuk ez onartzeko, eta debekatutako jarduerak bildu izana gogorarazten du, hala nola aurreproiektuan gisako terminologia erabiltzeko egindako ahalegina.
83. Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren Zuzendaritzaren txostenak (geroago jaso) egokitzen jotzen du aurreproiektuan erabilitako prozedurazko tratamendua, baina aditzera ematen du komeniko zatekeela Lehiaren Euskal Agintaritzak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak esku hartu izana; are gehiago, esaten du beharrezkoa zatekeela Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren parte-hartzea.
84. Gainera, aldeko kontsiderazio orokor batzuk egiten ditu aurreproiektuaren arautze-edukiari buruz, testuan zuzenketa jakin batzuk egin beharko liratekeela esaten du, eta komenigarritzat jotzen du aurreproiektuaren erregelamenduzko garapenerako deia egitea, bereziki Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Kontseiluari dagokionez; osterantzean, onartzen du ahalegina egin dela kalkulatzeko zer eragin ekonomiko izan dezakeen aurreproiektuak, bai diru-sarreretan, esku hartzeko araubide berriaren aplikazioari lotutako tasengatik eta EAeko Administrazio Orokorrak segurtasun publikoaren esparruan eman beharreko zerbitzuengatik (sarreran eta gastuan aurreikus daitekeen hazkundera ñimiñoa dela eta oso garrantzi ekonomiko txikia duela onartuta), bai Udal Administrazioan edo eragindako sektore ekonomikoan.



85. Ekimenaren sailaren ondoko prozedurazko memoria osagarriak erantzun arrazoitua ematen dio txostenari; testuaren zenbait zuzenketa onartzen ditu, eta aldatu beharreko tasen zenbatekoak eguneratu; ez ditu aintzat hartzen gainerako iradokizunak, batez ere prozedurazko esku-hartzeari buruzkoak, honako hauengatik: kasuren batean, garatzeko arauen unera atzera daitezke (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa); pentsatzen da ez dagoela lotura zuzenik aurreproiektuaren asmoarekin (Lehiaren Euskal Agintaritza); uste da aurreikuspenek garrantzi txikia dutela testu arautzailean, eta, horrenbestez, ez dago justifikatuta txostenera jotzea (Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza).

V AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

A) Oro har kontuan hartzekoak:

86. Lehenago adierazi da espedienteko memoriak esaten dutela udalek aurrez zuten eskumen-maila berari eutsi zaiola azkenean aurreproiektuaren behin betiko testuan, alde horretatik indarreko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legea aipatuta.
87. Uste hori baieztatu egin daiteke, aurreproiektua egiteko prozesuan parte hartu zuten eragileen parte-hartzearen eta entzunaldiaren xede izan zen lehen zirriborroa ikusita, testu hori bat baitator gure 119/2012 Irizpenaren xede izan zenarekin; hartan, ikusten zen zeuzkan kasu jakin batzuetan (nagusiki 44. artikuluan, 37. artikuluekin lotuta hartuz gero) ikuskizunen esparruan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoari baimentzeko eskumena esleitzen zitzaiola, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legean aurreikusitakoari gehituta.
88. Aurreproiektua, alde horretatik, azken bertsioan, bere estreinako eskumen-mugaketara itzultzen da, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren espedienteen ebazpen-esparruan (36. artikulua); haietan, beti nabarmendu da udal-protagonismoa, eta murriztagoa izan da udalez gaindiko ebazte-arloko esku-hartzea, edukiera samar handiko ikuskizunak egitearen esparruan eskumena duen organo autonomikoaren esku-hartze informatzailea bazter utzi gabe.
89. Gainerakoan, udalek gaien duten eskumenak, lehen lege-testutik (Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legetik) xedatua bera, ia-ia aldatu gabe iraun du beti, gaiaren arauketa zabaldu den alderdietan, eta gisa berean parte hartzen du aurreproiektuan bere ahal arauemailearen erabileran, zenbait alderditan ordenantzak emanaz [5.1 f), 14.3, 17.3, 19.2, 27, 32.1 artikulua], segurtasun-neurriak hartuz (48. artikulua), eta zehapen-ahala baliatuz (61.2, 63.1 artikulua).
90. Aurreproiektuan agerian gelditzen da Administrazioak esku hartzeko araubidea arindu dela, horren bidez ulertuta teknika formal juridiko bat erabiltzen dela, zertarako eta,



jarduera batean, ekonomikoa bada bereziki, legez aritzeko ordenamenduan xedatutako baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko; eta, era berean, ulertuta aurretiazko jakinarazpena araubide samurragoa dela interesdunarentzat, berekin erantzukizunpeko adierazpena dakarrena baino.

91. Eta, hala, ikusten da lantze-prozedura hastean testuan erantzukizunpeko adierazpena agertzen zela Administrazioak esku hartzeko araubideko teknika formal juridikoen artean, baina azken testuan aurretiazko jakinarazpena ezarri dela, gainerako teknika juridikoen ordezeko aukera moduan.
92. Horrenbestez, indarreko arauan, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legean —zenbait lege (barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera) aldatzekoa den apirilaren 23ko 7/2012 Legeak eragindako aldaketaren ondoren—, aurreikusita dagoen arauketara itzultzen da, aurretiazko jakinarazpena jasotzen baitu, lizentziaren araubidea aplikagarria ez zaien establezimenduak irekitzeari lotutako kasu guztietarako ordezeko aukera moduan.
93. Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legearen indarreko araubidearen eta aurreproiektuaren araubidearen artean —azken horrek ere dauka esku hartzeko araubide dual bat (lizentzia edo baimena, eta aurretiazko jakinarazpena), baina orain, establezimenduak irekitzeko ez ezik, ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiteko ere aurreikusten du— aldea hau da: establezimendu-lizentziak gaur egun duen autonomia desagertzen da, eta alderdi hori azpimarratu egiten da, gainerako arau orokorretan edo sektorialetan galdagarriak diren gainerakoen aldean daukan izaera independenteaz den bezainbatean.
94. Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legeak berak gaur egun establezimendu jakin batzuen irekiera-kasuan kontuan hartzen duen teknika juridiko berarekin jarraituz, aurreproiektua Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko Lege Orokorrean (23. artikuluan) araututako jarduera sailkatuen lizentzien araubidera jotzeko errezeptizio-igortze batez baliatzen da, haren araubidean txertatzeko, bai prozedurari dagokionez (24. artikulua), bai, orokorrean, ikuskizunetarako eta haiei atxikitako ohiko edo noizean behingo jardueretarako eskumena erabiltzeko gaitzen duen titulu juridikoari dagokionez (23.2 eta 4 artikulua).
95. Aurreproiektuak, halaber, araubide arinago bat jasotzen du, aurretiazko jakinarazpenekoa, ikuskizun edo jarduera jakin batzuk egiteko (38. artikulua), gaur egun Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legean ikuskizun- eta jarduera-mota jakin baterako dagoen baimentze-araubide bakarraren aldean (29.3 artikulua), azken horretako kasuen zerrendak ia bera izaten jarraitzen baitu.



96. Bestalde, esan daiteke aurreproiektuaren azken testuak esku hartzeko araubidearen egituratze argiagoa egiten duela; izan ere, egungo Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legearen ereduari jarraitzen dio; alde batetik, lokalei edo establezimenduei dagozkien alderdiak eta, bestetik, ikuskizunei eta jardueri dagozkienak bereizten ditu; horren bidez, azpigai bakoitzean eskumena duten herri-administrazioen eskumenak argiago zedarritzen ditu; horrenbestez, gainditu egiten ditu aurreko testuetan (adibidez, 119/2012 Irizpenaren xede zenean) bereizi gabeko aplikazioko araubide juridikoak arautzeak zeuzkan arazoak, haiek aplikatzean ziurgabetasuna sor baitzezaketen.
97. Era berean, espedienteko dokumentuek adierazten dute aurreproiektuak, azken idazketan, erregelamendu bidez arautu beharreko kasu gutxiago jasotzen dituela (argia da Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Euskal Kontseiluari buruzko arauan, 6. artikuluan, haren osaera zuzenean jasotzen baita testuan bertan, geroko erregelamendu baterako utzi gabe).
98. Esaten bada ere sarrera txikiagoa ematen zaiola ahal arauemaileari aurreko bertsioetan baino, testuak erregelamenduzko gaitzeak kontuan hartzen jarraitzen du, eta hori beharrezkoa eta are komenigarria ere bada; izan ere: “dudarik ez dago erregelamenduzko ahala ez dela eratzten legezko aginduen errepikatze hutserako, baina haiek osatu eta integratzeko, eta horrek ahal horren jabe diren instantziei ahalmen diskrezionalak edo aukerakoak ematen dizkie, garapen hori zehazteko interes orokorraren mesedetan, jokoan dauden interesen arteko arbitrajea eginez ... Kasu honetan, dudarik ez dago arauak eskatzen duela, 17/1997 Legearen (RCL 1998, 1050 eta LCM 1997, 227) zioen azalpenetik eta Aginduaren beraren hitzaurretik ondorioztatzen den bezala, kontuan hartzea eta neurtzea, alde batetik, establezimenduen titularrek beren jarduera ahalik eta mugaketa gutxienez, ordutegiei dagokienez bereziki, garatzeko daukaten bidezko interes komertziala eta, bestetik, herritarrek, oro har, eta, bereziki, establezimendu horiek kokatuta dauden lekuetan bizi diren pertsonak dituzten interesak, ingurumena ez aipatzearen ”(Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 9. atala, 839/2004 Epaia, urriaren 18koa. JUR 2004\317244); are gehiago honen moduko gaitetan, daukaten osagai tekniko nabarmenagatik Administrazioaren ahal horretara jotzea justifikatzen dutelako.
99. Bestalde, esan daiteke toki-ahal arauemaileak gaitasuna duela legez berariaz aurreikusitako kasuetatik kanpo iritzia emateko: “Egia da aipatu legearen azken xedapenetako lehenak hau esaten duela: ‘Ahalmena ematen zaie Gaztela eta Leongo Juntari eta Presidentetza eta Lurralde Administrazioiko sailburuari behar diren xedapenak eman ditzaten lege hau garatu eta aplikatzeko’; baina inoiz ere ez da mugatzen Udalak, bere eskumenen barruan, lehen aipatutako 8. eta 13. artikuluetan jasotzen diren baldintzak arautzeko aukera, betiere ez badira Legean bertan eta Juntak lege hau garatzeko eta aplikatzeko emandako xedapenetan jasotakoaren aurkakoak, eta baztertu gabe Juntak beste baldintza batzuk xedatu ez izana, azken xedapenetako lehen horrek ahalbidetzen dionaren arabera. Hortaz, ez da egokia Bandoa deuseza dela adieraztea



aipaturako eskumen falta horrengatik, alde batera utzi gabe haren zati bat deuseza dela adieraz daitekeela eskumen falta horrengatik, hala egiaztatzen bada, eta hala eskatzen bada demandan” (Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusia, Burgos, Administrazioarekiko Auzien Sala, 186/2012 Epaia, apirilaren 13koa. JUR 2012\197633).

100. Ahal arauemaile horren erabileraren ondorioz, gerta daiteke araubide-aniztasun guztiz legitimoa sortzea: “Era berean, ezin du aurrera egin errekurtsua jarri duen aldeak egindako alegazioak, hau da, berdintasun-printzipioa (Konstituzioaren 14. artikulua) urratzen duela Juntak Leonen duen Lurralde Ordezkaritzak establezimendu publikoen ordutegiak finkatzeaz 2002ko otsailaren 27an emandako Ebazpenak, Valladoliden establezimendu publikoen ordutegia, Juntak Valladoliden duen Lurralde Ordezkaritzak 2002ko abuztuaren 9an hartutako Ebazpenaren arabera, Leongo hirirako aipatu ebazpen haren ondorioz aurreikusitakoa ez bezalakoa eta zabalagoa izateagatik. (...) Aipatu behar da errekurtsua jarri duen aldeak ez duela egiaztatu inguruabar berak daudela bi hirietan, establezimendu publikoen ordutegiak finkatzeko kontuan hartu beharreko alderdietan, haiek hiri batean zein bestean berdinak izan beharko zutelarik..”(Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusia, Valladolid, Administrazioarekiko Auzien Sala, 231/2006 Epaia, otsailaren 1ekoa. JUR 2006\78570).
101. Ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzeko zenbait araubide egotearen ondoriozko egoera desberdinen beste adibide bat da, oraingo honetan eratorritako zehapen-ahalaren erabileran adierazita, Konstituzio Auzitegiaren 218/2013 Epaian aztertutakoa; ahal horrek funtsezko eskumenari dagokionez daukan izaera instrumentaletik abiatuta, honako hau esaten du: “izaera instrumentala funtsezko eskumenera erabilerari dagokionez, zenbait ebazpenetan adierazi dugun bezala (Konstituzio Auzitegiaren epai hauek: 48/1988, martxoaren 22koa, 25. OJ; 227/1988, azaroaren 29koa, 29. OJ; 96/1996, maiatzaren 30koa, 7. OJ). Horrengatik, autonomia-erkidegoek zehatzeko administrazio-arauak eman ditzakete kasuan kasuko funtsezko gaiak eskumena dutenean, eta ematen dituzten xedapenek zehatzeko administrazio-zuzenbidearen esparru honetan (EKren 25.1 artikulua) xedatutako berme konstituzionaletara egokitu behar dute, eta ez dute zentzugabeko eta, lortu nahi denaren aldean, neurrigabeko desakordiorik sortu behar lurraldearen beste leku batzuetan aplikagarria den araubide juridikoari dagokionez (EKren 149.1.1 artikulua; Konstituzio Auzitegiaren epai hauek: 87/1985, uztailaren 16koa, 8. OJ; 196/1996, azaroaren 28koa, 3. OJ). Hortaz, autonomia-erkidegoek arau-hauste eta zehapenatarako arautzen dutena Estatuako ordenamenduaren oinarriko printzipioek mugatuta egongo da (Auzitegi Gorenaren 227/1988 Epaia, azaroaren 29koa, 29. OJ), eta betiere EKren 149.1.1 artikuluan xedatuta dagoenari jarraitu beharko dio; era berean, zehapen-prozedura ‘administrazio-prozedura erkideari’ egokitu beharko zaio, hura eratzeko eskumena Estatuarena soilik izanik (EKren 149.1.18 artikulua), baina horrek ez du berekin ekartzen zehatzeko administrazio-zuzenbidearen arautze oro Estatuaren eskumen eksklusiboa denik, funtsezko eskubideen esparruari eragiten diolako (Konstituzio Auzitegiaren 87/1985 Epaia, uztailaren 16koa, 8. OJ).”
102. Zehapenen gaiarekin jarraituz, egokia da berariaz aipatzea Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legean aurreikusitako arau-hauste jakin bat (50.13 artikulua: oso



arau-hauste larria, arau-hauste larri bat egiteagatik, administrazio-bidean erabaki irmoz zehatua izan bada urtebeteko epean bi arau-hauste larrirengatik edo gehiagorengatik), esku-hartzaileraren batek zalantzan jarri baitu aurreproiektuan jarraitzen duelako. Konstituzio Auzitegiaren 189/2013 Epaiak berretsi egin du aginduaren konstituzionaltasuna, egiazki zehatutako bi arau-hauste edo gehiago egitearen gainekoa baita, eta ezin baita parekatu (Konstituzio Auzitegiaren 188/2005 Epaia) Konstituzioaren kontrakotzat jota dagoen eta arau-haustearen tipifikatze formal huts bati buruzkoa zen beste kasu batekin.

B) Artikuluei buruzko oharrak:

5. artikulua:

103. f) idatz-zatiko kasu nagusian, edariak kalean edo gune publikoetan hartzeari buruzko debeku bat aurreikusten da, “ostalaritzako lokaletatik ez datozenak” modulazioarekin zedarritu beharrik ez duena, eragozpenak sortzearekin baitu zerikusia, aipatu guneen legezko okupazioari eragin gabe.
104. Horrenbestez, eta loturagatik, terminoak berritu beharko dira 52.12 artikuluan aurreikusten den eta dagokion arau-haustean.

7. artikulua:

105. a) idatz-zatian, sartzeko eskubidea zuzenean aipa liteke, “onartze” hitz egokia erabiliz titularren eta antolatzaileen betebeharreri dagokienez (adibidez, 11.2, g artikulua).

11. artikulua:

106. Hemen, 2. paragrafoko ñ) idatz-zatian, inolako beharrik gabe aipatzen dira herritarren hizkuntza-eskubideak, kontuan hartuta zehazkiago jasotzen direla p) idatz-zatian kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak.

14. artikulua:

107. Erreferentziatzko irizpideak bildu ahal izango lirateke 3. paragrafoan tokiko ahal arauemailea erabiltzeko —adibidez, hurrengo 4. paragrafoan jasotzen direnak—, edo interes orokorreko ezinbesteko arrazoiak nabarmendu (29. artikuluan jasotzen direnetako batzuk), hura ematea funtsa badezakete.

15. artikulua:

108. Nolabaiteko disfuntzioa gertatzen da 1. eta 4. paragrafoen artean, informazio-ondorioetarako eta publizitaterako eredu normalizatuen onarpena jasotzen den moduagatik, bi organok (autonomikoa bata; zehaztugabea, bestea) neurri batean



komunak izan daitezkeen edukiei buruz esku hartzeko aukera jasotzen baita. Argitu beharko lirateke kontu horiek.

19. artikulua:

109. Zalantzak sor ditzake argiago ez jasotzeak Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 65.2 artikuluan xedatutako betebeharra, ikuskizun publikoei eta jolas-jardueri eskatzen baitie segurtasun-zerbitzu pribatua izateko 700 pertsonatik gorako edukiera duten lokal edo barrunbeetan, eta gauza bera eskatzen baitie, dagoen arriskua edo kalteberatasuna kontuan hartuta, erabakitako beste batzuei.
110. Ulertu beharko litzateke betebeharrak indarrean jarraituko lukeela, aipatu 15/2012 Lege horren arabera, baina aginduaren 1. paragrafoan adierazitakoak zalantza batzuk sortzen ditu, esaten baitu aipatu legearen eta aurreproiektuaren erregelamenduzko garapenean zehaztuko direla segurtasun-neurriak.

23. artikulua:

111. Aginduak, gaitzen duen titulua zehazteari dagokionez, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko Lege Orokorrean xedatuta dagoenera igortzen du, eta arauketa hori aipatu lege horren II. eranskineko (“Saillkatutako jardueren eta instalazioen zerrenda”) A) idatz-zatiko 15. eta 16. atalei ematen zaien idazketa berriarekin osatzen da (aurreproiektuaren lehen xedapen gehigarria).
112. Atal horien idazketa berriaren arabera, ikuskizun publiko eta jolas-jardueretarako establezimenduen artean, honako kategoria hauetan erregistratuek izan behar dute jarduteko lizentzia: dantzalekuek, diskotekek, gazteentzako diskotekek, taberna bereziek, pubek eta musika-tabernek edo antzekoek, zezen-plaza iraukorrek (15. atala), hala nola, kategoria horietan ez egon arren, zerrendatzen diren baldintzetakoren bat betetzen dutenek (16. atala). Gainerakoetan, aski da aurretiazko jakinarazpena aurkeztea.
113. Betebehar horien artean, orain axolazkoa denari dagokionez, azpimarratu behar dugu 300 pertsonatik gorako edukierak berekin ekartzen duela establezimenduak jardueraz lizentzia eduki behar izatea.
114. Esku hartzeko araubide hori, ordea, merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeke premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legeak (zeina, hurrenez hurren, honako hauek aldatu baitute: ekintzaileei laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legeak eta merkatu-batasuna bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak) xedatu duenarekin bateratu behar da; 12/2012 Lege hori Estatuak eman zuen eskumen-titulu anitzetan babestuta (EKren 149.1. 1.a, 13.a, 14.a, 16.a eta 18.a artikulua).



115. Zehazki, lege horrek xedatutakoaren arabera, legearen eranskinean zehaztutako merkataritza-jarduera eta zerbitzu batzuei dagokienez, baldin eta haiek establezimendu iraunkorretan egiten badira, eta establezimendu horietan erakusteko eta jendeari saltzeko azalera erabilgarria ez bada 750 metro koadrotik gorakoa, administrazioek edo sektore publikoko erakundeek ezingo dute eskatu aurretiazko lizentziarik, instalazioei, funtzionamenduari edo jarduerari lotuta, edo antzeko besterik, antzeko horietan nahitaezkozkat jotzen bada aurretiazko baimena lortzea, garatu beharreko merkataritza-jarduera egin ahal izateko, edo kasuan kasuko establezimendua ireki ahal izateko. Lizentzia ezin eskatze horrek berekin dakar erantzukizunpeko adierazpenen edo aurretiazko jakinarazpenen araubide samurragoari lotzea.
116. Lege horrek xede duen esparrua merkataritza-jarduerarena da, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifak eta instrukzioa onartzen dituen irailaren 28ko 1175/1990 Errege Dekretuan xedatutako gakoien eta moduaren arabera zedarritzen ditu jarduerak.
117. Jarduera horiek eta aurreproiektuaren katalogoko ikuskizun publiko edo jolas-jardueretarako establezimenduak alderatuta, orokorrean ondoriozta daiteke arauketak hartzaile desberdinak dituela, eta Estatuaren legeak ez dituela baldintzatzen aurreproiektuaren aukerak.
118. Hala ere, kontraesan bat gerta liteke 966.1 epigrafeko (“Liburutegiak eta Museoak”) jarduerari dagokienez, lizentzia izan beharko luketelako, edukia 300 pertsonarentzat edo handiagoa izanez gero (onartu nahi den lege autonomikoaren ondorioz), baina hori ez litzateke posible izango, haien azalera 750 metro koadrotik gorakoa izango ez balitz (Estatuaren legearen aginduz).
119. Prozeduraren memorian 989.1 epigrafeko establezimenduak ere aipatzen diren arren (jarduera “ikuskizun publikoetarako txartelak ematea” dutenak), gure ustez, aurreproiektuaren katalogoan ez dago soil-soilik jarduera hori egiten duen establezimendurik.
120. Bestalde, planteia liteke aurreikuspen espezifikoren bat egitea, prozeduraren ikuspuntutik baliagarria litzatekeena jardueren titularrentzat, lizentzia edo aurretiazko jakinarazpena honako hauetan ere aginduzkoa izateari buruz: ikuskizun- edo jardueramota aldatzea, eta instalazioak berritzea edo lokalak lekuz aldatzea (Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legearen 9.2 artikulua).

24. artikulua:

121. Ikuskizunak arautzean erabiltzen diren terminoen eta ingurumena arautzean erabiltzen direnen artean nolabaiteko nahasterik sor ez dadin, “zuzentzaileak” terminoa



kendu beharko litzateke 3. paragrafoko bigarren atalean, eta neurri eta baldintza teknikoak besterik ez aipatu, aurreko atalean jasotzen diren bezala.

25. artikulua:

122. Segurtasun juridikoagatik, komeni da xedatzen duen betebeharraren subjektu pasiboa adieraztea sarrerako paragrafoan, nahiz eta argi egon establezimenduaren edo jardueraren titularrari zuzentzen zaiola.

37. artikulua:

123. Hirugarren paragrafoan, honako hauek aipatzen dira: “lege honen garapenean erabakitzen diren arautze sektorialak”; baina horrek zalantzak sor ditzake daukan xedeari buruz: aurreproiektuaren beraren erregelamenduzko garapen-arauak; edo beste sektore arauemaile batzuetako arauak, desegokia izan arren aurreproiektua haietara hedatzea.
124. Horregatik, hobe da “arautze espezifikoak” terminoak erabiltzea; adibidez, paragrafoaren hurrengo atalean erabiltzen dira, aurreproiektuak izan dezakeen norainokoa behar bezala zehaztu eta zedarrizteko.

45. artikulua:

125. Hemen, 1. paragrafoaren c) idatz-zatian jasotzen den kasua b) eta d) idatz-zatietan jasota dauden eta errepikatzen diren zenbait elementuz osatuta dago, eta zalantzak sortzen dira haren baliagarritasun autonomoaz.

Laugarren xedapen iragankorra:

126. Laugarren xedapen iragankorraren idazketak —Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluari aplikatu dakiokeen araubidea aurreikusten du, aurreproiektuan jasotakoaren erregelamenduzko garapena gertatzen ez den bitartean— zalantzak sortzen ditu Kontseilu horren osaerari dagokionez, zeina proposatzen den 6.3 artikuluan araututa eta zehaztuta baitago. Xedapen iragankor horretan pentsatutako idazketak aditzera ematen du Kontseiluak —aipatutako garapena gertatu bitartean— indarreko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legearen 44. artikuluan jasotako moduan osatuta jarraituko duela. Horrek berekin ekartzen du aurreproiektuaren aipatu aginduaren aplikazioa une horretara arte atzeratuko dela, baina horri ez zaio zentzurik aurkitzen, ez baita ikusten zertan den beharrezkoa Kontseiluaren osaera erregelamenduz garatzea edo zehaztea, lege-mailako arauan aurreikusita badago.



127. Xedea bada denborazko eraginkortasun espezifikoa ematea —indarrean jartzeari dagokionez— 6. artikulua 3. paragrafoari, Kontseiluak, praktikan, egungo osarearekin une jakin batera arte funtzionatzen jarrai dezan —zehazten ez diren arrazoi batzuegatik—, azken xedapen batean eta modu argian aldatu beharko da araura bere indarraldiaren hasiera.

Azken xedapenetako lehena

128. Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko Lege Orokorren II. eranskineko A) idatz-zatiko 16 zenbakitik “ostalaritza eta sukaldaritza” terminoak kentzeak —establezimendu eta jarduera horiei dagokienez, ulertzen da sailkatutako jardueren zerrendan sartuta jarraitzen dutela, baina orain termino orokorrago batzuetan: ikuskizun publikoetan eta jolas-jardueretan—, ezinbestean eta modu berean, eragina izan behar du Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko Lege Orokorren II. eranskin bereko B) idatz-zatiaren 8 zenbakian ere.

C) Araugintza-teknika:

24. artikulua:

129. Sobera dago gaztelaniazko “sea” adizkia erabiltzea 1. paragrafoko a) idatz-zatiari dagokion atalean.

29. artikulua:

130. Sartu gabe dago gaztelaniazko “en” preposizioa gaztelaniazko hitz hauen artean: “recreativas” eta “espacios”; hori 3. paragrafoan gertatzen da, c) idatz-zatian.

43. artikulua:

131. Sobera dago 6. paragrafoan gaztelaniako “se” izenordain inbertsonala sarrerako paragrafoko azken komaren ondoren.

60. artikulua:

132. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeaz giten den aipamenak osoa izan behar du.

Bigarren xedapen gehigarria:

133. Xedapenaren 2. paragrafoan, ez lirateke antzeko terminoak erabili behar tarteki berean, hala nola gaztelaniazko “organización” eta “organizados” terminoak, itxurazko tautologia bat sortzen dutelako.



Azken xedapenetan lehen:

134. Paragrafo terminoa erabili behar da atal terminoaren ordeztatik artikuluen lehen azpizatiketetan, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 1993ko martxoaren 23ko erabakiz lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko onartutako jarraibideen arabera.
135. Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko Lege Orokorraren eranskineko zenbakera zuzenak erromatarra izan behar du: II eta ez “bigarren” ordinala.

Beste batzuk:

136. Gogorarazten da akats gramatikal batzuk zuzendu behar direla (zuzendu gaztelaniazko “intervinientes” hitza azalpenezko zatiaren bigarren paragrafoan), eta azentu batzuk gehitu edo kendu behar direla.

ONDORIOA


Batzordeak emandako irizpenaren arabera, aipatutako lege-aurreproiektua, behin irizpen honen mamian egindako oharrak aintzakotzat hartutakoan, Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu ahal izango zaio, onespena eman dezan.

Horixe egiaztatu dugu, Gasteizen, 2014ko ekainaren 16an, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 30.2. artikulua ezartzen duen betebeharra gogorarazi dugu: azkenean onartzen den xedapen edo ebazpena Batzordeari jakinarazi beharra, irailaren 12ko 167/2006 Dekretuak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duenak, 34. artikuluan xedatzen duen moduan eta epean.

O. E.:

Jesús María Alonso Quilchano,

Sabino Torre Díez,



Idazkaria

Lehendakaria